

ENTSEGU
LOKALETIK
OHOLTZARA / 21-23

Etorkizuneko
Arruazu zehazteko
parte hartze
prozesua hasi da
dagoeneko / 6

Arbizuko eskola
zaharrei zein
erabilera eman
jakiteko parte hartze
prozesua hastear / 11

Etzarri Aranatz
Nafarroan materia
organiko gehien
gaika bereizten
duen herria da / 13

200 korrikalarik
hartuko dute parte
igandean jokatu den
Uharte Arakil Beriain
Kilometro Bertikalean / 17



Uharte Arakilgo Erreka kalean sutearen ondoren eraikitako etxe berriak.

Garren arteko memoria

Imajina ezazu gaur 04:00etan esnatu zaituztela 'sua, sua' oihuek. Suak zure etxea di-da erre duela. Klean atorra hutsean gelditu zara. Pentsatu orain etxerik, ondasunik, aziendarik... ezer gabe gelditu zarela. Duela 60 urte, hori gertatu zitzaion Uharte Arakilgo 19 familiari

Alfredo Alvaro Igoa UHARTE ARAKIL Igandea zen 1961eko irailaren 17a. Infiñe etxeko Peio Gorriti Gorritik azaldu duenez, "baziren egun batzuk bero handia egiten zuena, hego haizea zebilena. Gauez ez zuen ezer ere freskatzten. Etxeak oso bero zeuden". Igande hartan "sekulako hego haizea zebilen" esan du Amparo Mendinueta Arañak. "Goatzean ere ezin egon", gaineratu

du Urdin etxeko Joxe Gorriti Olasagarrek.

Orduko etxebizitzaren inguruko azalpenak eman ditu Amparok: "ezkaratza, sukaldea eta estrabia zeuden behean. Gainean, gelak eta ganboikoa. Azken horretara igo eta aurreragoko etxea ere ikusten zenuen, etxeen arteko erdibitzaileak ohol batzuk zirelako. Tartearak zeuden eta batetik bestera pasa zintezkeen". Peiok

zehaztu duenez, guztia egurrez egin zegoen eta etxeetako ganboikoak edo safeiak "belarrez eta agotzez beteta zeuden". Gau haizetsu, bero eta lasai hartako panorama hori zen.

Sutea

Txirkillo etxeko alaba Rosa Mari Martiarena Gorritik bezala gaitzetzeko elkarrizketatuek argitu dute, sutea Erreka kalean

zegoen okindegiak eragin zuela. "Su bizia-edo eginen zuten, txispak atera ziren. Orduan etxeak ez zeuden erabat itxita. Safeiak zabalik zeuden. Txispa bat etxe batean sartu zen. Sartu zen safeian ez zuten bazkarik pilaturik. Su hartu zuen". Peiok argitu duenez, "lehen belarra ez zen orain bezala fardotan biltzen. Belarra solte zegoen, eta fardoa erretzea baino errazagoa da. Eta guztia egurrezko egiturarekin, ba..." Rosa Marik gaineratu duenez, 20 etxe "papera bezala erre ziren". Amparok esan duenez, "okinak lanean ariko ziren eta ez ziren konturatuko erretzen ari zela. Okindegiaren aldame-neko etxea ez, hurrengo, altuagoa zen, eta ttonttorrean agertu zen sua". Zein ordu zen ez dute gogoratzen. "Gauez zen. Ikargarria izan zen" Amparok. Baina 03:00ak edo 04:00ak izanen zirela uste dute.

Amparo erre ziren etxeen parean bizi zen, egungo Mendinueta harategiaren eraikinean. Haren amak balkoia erabat itxi gabe zuen gau hartan. "Ez zuen ongi lo egiten, argia ikusi, altxatu eta sua ikusi zuen. Amak guztiok esnatu gintuen: sua dagoela! Guztiok altxatu ginen. Anaiak pantaloia jartzen zuela, ahizpok kamisoiarekin-edo, horrela atera ginen". Rosa Marik esan duenez, "denda eta taberna zen Zibile itxe zegoen Mendikoa kalean eta hango andrearekin musean jolastera asko joaten ziren. Larunbata zenez, presarik ez. Klean zeudela, ikusi zuten nola piztu zen sua, eta garraxika hasi ziren".

Haiek entzunda, Rosa Mari "kalera atera eta sute hasi berria ikusi nuen, lehenengo etxeak erretzen hasiak ziren. Begira gelditu nintzen, baina indar ikaragarriarekin aurrera egiten zuela ikusi eta pentsatu nuen: 'hau etxera iritsiko da'. Etxera lasterkan etorri nintzen. Gurasoak ordurako esnatuta zeuden. Baina ama tontotuta, geldirik gelditu zen, ezin ezer egin. Anaia txikiak altxatu eta etxetik atera nituen. Senide batzuen etxera

eraman nituen, eta lasterkan bueltatu nintzen".

Peioren etxean denak lo zeuden. "Aldamena oihuka eta ate joka ibili zen eta horrela esnatu gintuen. Justu atera ginen gurasoak, anaia, arreba eta ni. Eta, gainera, lasterka; jantzita genuenarekin. Emakumezko harengatik ez balitz familia guztia erreko ginateke". Amparoren ahizpa "kalean beheantze atera zen lasterka, ni gorantz. Felipe Gorriti kalerantz jo genuen 'sua, sua' garraxika. Klean ez zen inor ikusten. Lasterka etorri ginen. Jendea berehala atera zen kalea. Bueltatzean Mendikoa kaleko etxe bateko teilatu bat nola erortzen zen ikusi nuen. Hura guztia suz beteta zegoen. Suak indar handia zuen".

Felipe Gorriti klean bizi zen Joxe, eta haren aita ohartu zen suteaz, "soinuak-edo, ez dakit". Ziurrenik Mendinueta ahizpetako baten garraxiak entzuten zituen. "Aitak abisatu gintuen. Hamar ginen etxean, gazteenak hiru urte zituen bakarrik". Ez Amparok ez Rosa Marik ez dute gogoratzen su ezkilarik jo ote zuten. Azkenak esan duenez, "segur aski joko zituzten, ta-ta-ta-ta-ta presaka jotzen da sutea dagoela esateko".

Klean

Amparok gogoan duenez, "teila-tua beheara egin zuenerako safeian zegoena erreata egonen zen, bestela ez da hain azkar erortzen teiladura bat. Ezin zen sartu. Etxe ilara hau horrela erre zen eta, hurrengoan, gauza bera. Oso azkar. Suteak ez zuen bizpahiru ordu iraun; minututan ez, segundotan zabaldu zen sua bi etxe ilaratan". Gaineratu duenez, "batzuek zutenarekin besterik ezin izan zuten etxetik atera, hain azkar izan zen dena; ez zuten aukerarik izan".

Anaia txikiak senideen etxean utzi ondoren, 16 urte zituen Rosa Mari etxera bueltatu zen: "neska gaztea izanda, beste gauza batzuetan pentsatzen duzu, eta nire arropen bila joan nintzen. Armairua zabaldu eta guztia hartu,



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea - Olazti

GIDARIDUN LEHIO BERRIAK
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 - Iruñea





1934ko Uharte Arakilgo ikuspegia airetik. NG



1956-1957 Uharte Arakilgo ortofotoa, sutearen aurretik. NG



1966-1971 ikuspegia, sutearen ondorengoa. NG

atera eta lasterka parean bizi zen izebaren etxera eraman nituen. Hura ere etorri zen laguntzera, eta zerbait ateratzen lagundu zigun. Atzera bueltatu nintzeneko gora ezin zen igo, safeia erretzen ari zen. Jaitsi behar, eta behean sukaldetik zerbait atera genuen. Baina ez zigun ezertarako betarik eman".

Joxe gelatik jaitsi eta beheko leihotik "beste etxeetako txispak eta nola etortzen ziren" ikusi zuen. "Haize nahasia zegoen. Beste izkina hartara joan eta erdia erreta zegoen. Sua etxe ilara batetik bestera, beheara pasatu zen eta lau edo bost minututan dena erreta zegoen".

Peioren esanetan, "dena garra zen". Okindegian hasi zen sua "hego haizeagatik, Mendikoa kalera pasa zen. Mendikoako etxeak azkarrago erre ziren. Zergatik? Erreka kaleko eta etxeen bertako garren menpe gelditu zirelako". Peioren familiak bi etxe zituen Mendikoa kalean eta biak erre ziren. Bizi ziren etxea hamar urte lehenago berritua zuten. Ondasunak ez erretzeko ahaleginak egin zituzten, Peio: "gora zeramaten eskailerak jaisten ari ginen eskaileren gainera erori ziren. Zeuden idiak eta behi batzuk askatu genituen. Txerriei atea zabaldu genien,

baina gehienak erre ziren. Bi-edo salbatu ziren. Han hil ziren txerrikumeak, eta txerrikumeak zituzten txerramak".

Baratzak, soroak etaazienda ziren garaiko uhartearren elikaduraren oinarria. Rosa Mari- ren etxeanazienda "oso gutxi" zuten. "Txerriak, oiloak, untxiak, behia eta idiak. Behi hura atera zuten, gainontzekoak, zorionez, mendian zeuden". Peiok azaldu duenez, "etxe guztietanazienda zegoen. Ezin atera. Errerik ere bai. Osaba egon zenazienda ateratzen, txekor bat etxe horretatik. Akordatzenaiz nola zuen soka

lasa jarrita, atera zuen eta hankaz gora bota zuen, kar, kar, kar. Orduan ez zegoenazienda asko, mendian egoten dira. Baina beti behi edo idi batzuk zeuden. Orduan idiekin ibiltzen zen, traktorerik ez zegoen. Bakarren bat egonen zen, baina gutxi".

Erreka kalean bi etxe ilara erre ziren eta Mendikoan ere. Ondoren ubeldea dago, eta txipuak. "Badaude 30-40 metro! Eta guztiak erre ziren" ziurtatu du Peiok.

Ahalegina

Mendikoa kalean sua itzaltzen ahaleginik ez zutela egin esan du Peiok. "Sua piztu zen Erreka kaleko etxe ilarari eta su hartzen hasi zen beste ilarari punparekin ura botatzen aritu ziren, etxe batzuk freskatu eta su har ez zezaten eta besteetako sua itzaltzen ahalegintzeko". Peiok kontatu duenez, "Erreka kalearen alde honetan (ekialdea) jendea teilatueta igo zen eta mantak jarri zituzten eta ura botatzen zieten teilatuek surik ez hartzeko. Temperatura, orduan, bueno... Ni egon nintzen hor, ura eramaten".

18 urte zituen Amparo hark gauza bera ikusi zuen: "badaezpada ura bota zieten sutearen pareko etxeei, suak har ez zitza". Haien artean berea zegoen. Ro-

samarik esan duenez, "suhiltzaileak etorri bitartean, hasieran herriko punparekin hasi omen ziren. Nahikoa handia zen. Baina, ezer ez; ur pitxera baten pare zen". Argibide gehiago eman ditu Joxek: "herriko punparekin egoten ziren hamar edo hamabost mutiko. Batzuetan praktikak egiten zituzten. Ura suteetako ur hargunetik hartzen zuten".

Eta suhiltzaileak iritsi ziren, Iruñetik eta Gasteiztik. Rosamari- rik gogoratzen duenez, "montona zeuden. Eta sirenak. Denbora askoan sirena entzun eta daldaketan hasten nintzen. Batzuk

sua itzaltzen aritu ziren eta beste batzuk prebentzio lanetan". Gaineratu duenez, "Erreka kalean erretzen ari ziren etxeen odorrak erortzen zirenean sugarrak kalearen bestaldeko odorretaraino joaten ziren. Suhiltzaileak pareko etxeetako paretak bustitzen aritu ziren, ez zezaten su hartu, arrisku handia baitzuten. Haize handia zebilen, txispak non nahi zeuden". Gaineratu duenez, "jende guztia kalean, begira. Kalea suhiltzaileen mahukez beteta zegoen. Garrekin gaua baino eguna zirudien. Eta denak pentsatzen: Erreka kalearen bestaldeko etxeak ez daitezela erre!"

Joxek esan duenez, "mahukekin eta hasi ziren, saiatzen. Oso serio. Hala ere, ezin zen. Ezinezkoa zen". Peiok azaldu duenez, "ezin guztiari erantzun zeuden. Ubeldetik hartu zuten ura". Aldameneko herrietatik Uharte Arakilera jendea joan zen. Hala esan du Peiok. Amparok irintarrak ditu gogoan. Joxek esan duenez, "Arbizutik beraien punparekin etorri ziren. Ondoko herrietatik laguntzera beti joaten zen aldameneko herrietatik". Rosa Mari- rik gogoratzen duenez, "festetan baino jende gehiago zegoen, ikusten. Ezin zen ezer egin. Eta egunetara ere ikustera etorri ziren". Peiok jakinarazi



ROSA MARI
MARTIARENA GORRITI

**"HIRU BAT URTE
EGON GINEN
BESTEEN ETXEETAN
BIZITZEN"**



JOSE
GORRITI OLASAGARRE

**"EGUNETARA
SU HARTZEN
HASTEN ZEN
BERRIZ"**

duenez, "ondoren udalak suhiltzaileek zutenaren moduko motordun punpa erosi zuen".

Sugarren azkartasunaren ideia azpimarratu du atzera Rosamari: "ezin izan genuen ezer egin. Ondoren, parean gelditu nintzen etxea nola erretzen zen ikusten. Indargabe. Dena erre zen. Ilusioz gordea nuen lehen ikasketa ziurtagiria, baina horretaz guztiz ahaztuta nengoen. Gainera, ez zen betarik egon". Beste lasaitasun batekin bizi izan zuen sutea Joxek sua etxetik "urruti" zuelako. "Urruti, beno! Beste etxe bat zegoen tartean. Erreka kalean paralelo dagoena, hori bai. Zuraketa botatzen zituenean... txispak alde honetara; baina, nola! Batzuk etxetik atera ziren beheiti horretatik. Beldurra, badakizu!"

Zortea

Zoria alde izan zuten uharterrek. Joxek dioenez, "suak hartzen badu eskola aldetik, herri hartzen erretzen da. Akabo herria!" Ideia berretsi du Peiok. Sutea tragedia handiagoa bihurtu zezakeen gertakari bat saihestea ere lortu zen. Rosa Marik kontatu duenez, "Mendikoa kalean tarteka bizi zen bikote bat zegoen. Egun hartan herrian zeuden. Gizonak kamioi handia zuen eta erregairen bat eramaten zuen. Behean bizi ziren. Kalea garra hartuta zegoen. Eta kamioia atera zuen. Ez dakit gizon hura nola atera zen. Ez badu ateratzen, buah!"

Peiok gaztigatu duenez, "azetilenozko botilez betetako kamioi handi bat atera zuen. Gizon hura kamioia ateratzen atrebittu zen. Hark su hartu balu, herri erdia desagertuko litzateke. Zoritzar guzti haren erdian zortea izan zen. Zorionez ez zen ez zauriturik ez hildakorik izan".

Kale gorrian

Gau erdian etxerik gabe gelditu ziren Uharte Arakilgo 19 familia. Aterpe bila Peioren familiak senideengana jo zuen. "Lehenengo gauak amaren lehengusu batzuen etxean pasa genituen, errepide ondoan. Ondoren, aita-ren anaia batek hutsik zegoen etxe bat zuen, eta etxe hau egin arte, han egon ginen. Pare bat urte izan zen". Arropa eta guzti utzi behar izan zieten, sutean guzti-guztia galdu baitzuten.

Etxerik gabe gelditu zen Rosa Mari. "Aste bat-edo senideen etxeetan banatuta egon ginen. Pisu bat utzi ziguten eta hara



Uharte Arakilgo Mendikoa kalean erre ziren etxeak.

joan ginen familiako bederatziak bizitzera. Gainontzeko kaltetuak ere antzeko ibili ziren, batean edo bestean kokatu ginen. Pisuan urteren bat eman genuen eta, ondoren, etxe berria egin zuten senide batzuen etxera pasa ginen. Hiru bat urte egon ginen besteen etxeetan bizitzen".

Amparoren etxea sutearen parean zegoen, "eta kezkatuta geunden, baina besteak laguntzeko kezka ere bagenuen. Nahasmena zegoen, baina herriko jende guztiak ahal zuen guztia lagundu zuen". Haien etxean ez zuten inor hartu, baina "kalean ez zen inor ere gelditu" azpimarratu du. Joxeren aitak etxera hiru urteko neskato bat eta bere amona eramane zituen. "Nire aita bere aitaren oso laguna zen, eta badakizu... Atorra hutsean etorri ziren eta nire amak

jantzi zituen etxearen arropekin. Arreba gaztenak esaten zuen: 'amatxo ez jarri hori nirea da-eta!' Badakizu, umeen gauzak. Gau hura pasatu zuten etxean". Gaineratu duenez, "jendea ahal zuen tokian bizi izan zen, etxe zaharretan, besteen etxeetan, pisuetan eta horrela".

Hurrengo egunak

Amparok uste du irailaren 17 hartan "inor ez ginela gau hartan goatzera berriro sartu. Guztiak pixka bat ikaratuta geunden". Hurrengo egunean etxetik "hondamendia" ikusi zuen: "etxeak ikustera ohituta, parean ezer ez, eta ia Arruazuraino ikusten zen. Dena libre gelditu zen eta base-riak ikusten genituen". Peiok atzetik: "bitxia zen hau guztia hutsik ikustea". Eguna esnatzerakoan 14 urte zituen Joxe harrendako ikusitakoa "harritzekoa, oso tristea zen hura!"

Rosa Marik azaldu duenez, "suhiltzaileek lana despeditzeko bizpahiru egun ziren, erretzez guztiz bukatu arte". Gogoratzen du ke asko ateratzen zela ondorengo egunetan. Joxek berretsi duenez, "egun askotara, hasten zen berriz sua hartzen. Egoten zen brigada bat, gizon batzuk hor, itzaltzeko. Zibilen itxen egoten ziren, begiratzen, punparekin prest, sua hasten bazen, berriz itzaltzeko". Peiok sute garaian ez, baina hondakinak kentzeko garaian bai lan egin zuen. "Jendea laguntzera joaten zen. Habeak-eta jaso zituzten beste no-

rabait eramateko" azaldu du Amparok.

Rosa Mariren etxea ilarako Erreka kaleko izkinan zegoen. "Aurreko aldea urak asko hondatu zuen. Baina gauza batzuk ez ziren erre. Teilatuak lurrean eta paretak zutik zeuden. Oso gutxi egon zen horrela". Kontatzekoa ere badu: "gure etxearen aurreko aldean jangela genuen eta han ontziak gordetzeko altzaria genuen. Nik han erosi nuen aurreneko erlojua gordea nuen. Suhiltzaile bat handik zebilen eta erlojuarena aipatu eta atera egin zidan. Funtzionatzen zuen!"

Berreraikitzea

Paretak zutik gelditu ziren eta haien artean teilatuak zeuden. Rosa Marik azaldu duenez, "soldaduskan ari ziren soldaduak

etorri ziren, tartean goñedua izanzen zena. Pareta guztiak bota zituzten, oso hondatuta zeudelako". Joxek dioenez, hilabete-er-edo joan ziren soldaduak herrira: "soketatik tira egin eta botatzen zituzten paretak". Hondakinak Enizko zuloan bota zituzten, betetzeko (hilerritik ekialdera). "Gaur egun autobia da, Iruñeko noranzkoan" zehaztu du Peiok. Haren iritziz, "hondakinak kentzerakoan behar bada bota beharko ez ziren gauzak bota ziren. Bazeuden harritzko pareta ederrak..." Rosa Marik azaldu duenez, "harlanduzko arkuak zituzten etxeak zeuden erretakoan artean. Depositario etxeak harrizko balkoiak zituzten".

Rosa Marik gogoratzen duenez, etxeak egiteko "adostasuna lortzea kostatu zen". Joxek azaldu duenez, "etxeak nola izanzen ziren Francisco Franco etxebizitza patronatuak eta udalak erabaki zuten. Etxeengatik ordaindu behar izan genuen, baina uste dut merkeago izan zela". Argibide gehiago Rosa Marik: "etxebizitza txikiak eta handiak erakitziren. Atzeko paretan lurzorua utzi zuten eta denak abeltzainak ginenez, estrabiak egin genituen: beheanazienda eta goian haiendako bazka gordetzeko. Sutearen aurretik Zibilen itxe ondoan plaza bat zegoen, espazio handia. Etxea orduan ibaitik gertuago zegoen. Etxeak herrira gerturatu, eta akabo plaza".

1961eko irailaren 17ko eguna Artzain Eguna antolatu zen lehen aldia gisa pasa behar zuen Uharte Arakilgo historia txikira. Suteak egunaren edukia betirako aldatu zuen. Baina Aralar Mendi elkarteak leku-koari heldu zion 1968an. Sutea eta hiru bat urte pasa ondoren Peiok eta Rosa Marik etxe berria mustu zuten. Azken horrek azaldu duenez, "Diputaziotik etorri ziren. Dantzaldia egin zen. Gure bajaran jarri zuten". Ironikoki, mustutze egunean euri asko egin zuen. Rosa Marik: "hona etorrita, bizitza berria hastera".

Baina uhartearrak berehalaxe bueltatu behar izan zieten mesedea arbizuarrei. Izan ere, sei egun pasa ondoren, 1961eko irailaren 23an, Antonio Yabar, Felipe Razkin eta Martin Mendinuetaren etxeak erre ziren Tellerian kalean. Ez zen kalte pertsonalik izan.



AMPARO MENDINUETA ARAÑA

"DENA LIBRE GELDITU ZEN ETA BASERRIAK IKUSTEN GENITUEN"



PEIO GORRITI GORRITI

"ZORIONEZ EZ ZEN EZ ZAURITURIK EZ HILDAKORIK IZAN"



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

ETB2, espainolismoaren Troiako zaldia

Irailean sartzearekin batera, kristo guztia ikasturte berrirako planak egiten hasia da. Aurtun Bartzelonako metropoli aldean ibiltzea egokitu zait, seme-alaben unibertsitate kontuak tarteko. Harrigarria katalan hizkuntzaren erabilera zabal eta indartsua! Harrotasunez egiten dute, gurean ez bezala. Unibertsitatearen irekiera ekitaldia ere, katalan hutsez. Haiek katalanak dira eta katalanez hitz egiten dute. Gu, berriz, elebidunak omen gara eta espainolez hitz egitera kondenaturik gaude.

Nafarroan, euskarazko telebistaren lorpena epikoa izan zen. Paz de Ciganda ikastolako gurasoek eskatuta eta herri ekimenak sustatuta, ETB1 ikusteko antena Aralarko santutegiko teilatuan jarri zen 1985. urtean, garaiko agintarien eta legeriaren ginetik. Inocencio Ayerbe Aralarko kaperau euskaltzale uhartearrak garai hartan Guardia Zibila joan zitzaionean egindako adierazpenak: "ni prest nengoke bizia emateko, beharrezkoa balitz, Nafarroan euskararen hedapena sustatzeko, baina paso egiten dut politikaz eta are gehiago helburu komertzialez".

NAFARROAN, EUSKARAZKO TELEBISTAREN LORPENA EPIKOA IZAN ZEN

Hainbeste urte pasatu direnean, ETB1 hura, euskaldunon komunitatea sendotzea eta euskara sustatzea helburu zuena, ETB2 katearen menpeko bihurtu da, edukietan txirotua eta eskastua eta ordutegietan zokoratua.

Horrela, ETB2 hitzun

euskaldunendako espainolismoaren Troiako zaldi bihurtu da. Izan ere, euskaldun peto-petoak espainolez hitz egiten jarrita, barra-barra espainolismoaren ereduak eskaintzen dizkigu, izan politikariak, kirolariak, kultur eragileak, telebistako pertsonaia eta abarrenak. Euskaldunak euskaraz aritzea gutxietsiz eta, horren ordez, espainolismoa sustatuz. Hori bai, saioak amaitzerakoan, "izan ondo" eta "bihar arte" kortesiazko esaldiez apainduta. Bestalde, Nafarroan eragozpen teknikoak omen daude gazteendako berariazko programazioa euskaraz eskaintzen duen ETB katearen hedapena egiteko.

Hori horrela, kontuan izanik, ETB-k Nafarroan duen hedapenak euskararen sustapena oinarri duela, xede horri jarraikiz, ETB2 espainolismoaren Troiako zaldiaren ordez, ETB3-ren hedapena da justifikaturik legokeena. Mingarria baita euskaldun petoak espainolez entzun behar izatea! Horixe, ikasturterako helburu bat.

Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

KIDEAK

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

KIDEAK programa Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiken Zuzendaritza Nagusiaren mendeko zerbitzu esperimental berri bat da. Nafarroan familiaren laguntzarik ez duten 18 eta 23 urte bitarteko gazte migratzaileei zuzendutako zerbitzua da.

Zerbitzuaren helburu orokorra gazte horien garapen integrala sustatzea da. Emantzipatzeko autonomia eta gaitasun egoeraren azterketatik abiatuta, batera diseinatzeko dira laguntzeko ibilbide pertsonalizatuak, genero ikuspegia kontuan hartuta. Ibilbide hauek, intentsitate maila desberdinekin, gazte bakoitzaren egoeraren eta esku hartzeko fasearen arabera izango dira. Gizarte mentoria txertatzen da prozesu osoan integratzeko funtsezko elementu gisa.

Kideak programatik akonpainamenduko esku hartze integral bat planteatzen ari dira, gazte horiei beren kalteberatasun egoera eta enpleguaren, prestakuntzaren, etxebizitzaren edo beste baliabide batzuk eskuratzearen eremuetan dauden zailtasun bereziak gaintzen laguntzeko. Gainera, egonaldi labur edo ertaineko ostalua eskaintzeko aukera ematen die hala behar dutenei. Helburua ingurune komunitarioan bizitza autonomia eta gizarteratzea bultzatzea da. Biztanleria hori helduaroan integratzea errazteko, autonomia eta garapen prozesuak bultzatu nahi ditu, gutxienez, honako eremu hauetan: hizkuntza, hezkuntza eta prestakuntza arloetako gaitasunak; gizarte eta harreman arlokoak; psikologia emozionala; juridiko administratiboa eta etxebizitza.

Kideak programak 50 gazteri laguntzeko gaitasuna du. 50 plaza horietatik 35ek ostalua

eskaintzen dute (mentoretza eta laguntzeaz gain). Gainerako plazak, gehienez 15, mentoretza eta gizarte laguntzako programan sartuko lirateke.

Programaren sarbidea Adingabeak Babesteko Sistema edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez izango da, programan sartzeko betekizunak egiaztatzen dituen administrazio unitate eskudunaren txostenarekin.

Programan sartzen diren gazteek programan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartuko dute, urtebetez. Hala ere, programatik aldezturik irten ahal izango da, esku hartzeko plan indibidualizatuaren ezarritako autonomia helburuak lortzen badira, edo bere garaian hartutako konpromisoak behin eta berriz betetzen ez badira. Gazteek 24 urte betetzen dituztenean ere aterako dira programatik. Programan parte hartzea, salbuespen gisa, sei hilabeteko bi alditan luzatu ahal izango da, gehienez ere bi urtera arte.



OBJEKTIBOTIK

Dantzaleku hautsontzi bilakatuta

Dantzalekutik paseatzen zebiltzala aurkitu dute irakurle batzuek altxorra, norbaiti ongi iruditu omen zaio kotxeko hautsontzia lurrean hustutzea. Irakurleek "lotsagarritzat" hartu dute egindakoa eta horrelakorik berriro ez egiteko eskatu dute, "mendia denona da, eta denon artean zaindu behar dugu".



UTZITAKOA

guaixe
SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhora Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Felix Altzela Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Estrategia plana egiteko aurreneko bilerak

Dagoeneko bost elkarrizketa eginak dituzte eta asteburuan hiru talderen iritzia jaso nahi dituzte: gazteenak gaur, 18:00etan; eta bihar, 11:00etan, alde batetik, emakumeenak eta, bestetik, adinekoenak

ARRUAZU

Hamar edo hamabost urte barrru Arruazu nolakoa izanen den gaur egun irudikatzea, premiak aztertzea eta lehentasunak markatzea. Egiteko hori dute arbazuarrak heldu den asteetan. Izan ere, Arruazuko estrategia plana osatzeko prozesua martxan da. Horretarako, Emun kooperatiba kontratatu du udalak, parte hartze prozesuaren kudeaketaz eta arbazuarren parte hartzea dinamizatzeaz arduratu dadin. Arruazuko Udalak horretara 16.000 euro (BEZ barne) bideratu ditu. Gorka Ovejero Ganboa alkateak jakinarazi duenez, "dagoeneko hasi dira parte hartze prozesuko egin beharrekoak egiten. Beraien ibilbide eta eskarmentuagatik bost arbazuarrak aukeratu zituzten eta bostei elkarrizketa sakona egin zieten".

Hileko lehen larunbatean egin zituzten bost elkarrizketa horiek kontratatutako enpresakoek. Baina haien lana ez da horretara



Arbazuarrak zortzikoa dantzatzan.

ra mugatuko. Ovejero gaztigatu duenez, "gaur, 18:00etan, gazteekin elkarrizketa egin da etorkizuneko Arruazu nola irudikatzen duten jakiteko. Bihar, berriz, alde batetik, emakumezkoekin elkarrizketa egin da, eta, bestetik,

adinduekin". Biharko bi hitzordu horiek 11:00etan izanen dira. "Eguraldiak laguntzen badu saioak Itur-aldea elkartearen atzeko belardian egin nahi genituzke. Bestela, emakumeena herriko etxean eginen litzateke. Adinekoak hango eskailerak igotzen ez ibiltzeko, elkartera gonbidatuko genituzke", argitu du alkateak.

Horien ondoren, udazkenean arbazuarrak guztiei zabalik egonen diren beste hiru saio aurreikusi dituzte: lastailaren 2a eta 23a eta azaroaren 20a. Guztiak larunbatetik eta hitzordua 17:00etan dago jarrita. Horrela, herriaren lehentasunak markatuko dituzte. "Helburua da denon artean zehaztea zer Arbazu garatu nahi dugun. Eta proiektu horiek garatzeko udalak zorpetu behar badu, jendearekin batera joan izanagatik izan dadila" esan du Ovejero. Alkateak aurreratu duenez, estrategia plana urte bukaerarako egin izanen da.

Bakaikuko Udalak webgunea mustu du

Bakaikuri eta herriko etxeari buruzko informazioa eskuratzeko aukera eskaintzen du

BAKAIKU

Joan den ostegunaz geroztik Bakaikuko Udalak web orrialdea du: www.bakaiku.eus. Udalak aurkezpenean esan duenez, "bakaikuarrei gertutasuna eta gardentasuna eskainiko duen tresna izatea" nahi du, "eta herria ezagutu nahi dutenendako erabilgarria izatea nahiko genuke. Aldi berean, tramiteak telematikoki egiteko aukera ematen du egoitza elektronikoak: eskaerak aurkeztu, eta abar". Horretaz aparte, bestelako atalak ditu web orri mustu berriak: gaurkotasu-



Bakaikuko Udalaren webgune berria.

na (albisteak eta agenda), udala (antolaketa, zergak, dokumentu ereduak, ordenantzak, estrategia plana eta udal informazioa jasotzeko moduak), herriari buruzko jakin beharrekoak biltzen dituen Bakaiku atala, intereseko telefonoak eta udalarekin harremanetan jartzeko bidea.

Internetarako saltoa emanda, Bakaikuko Udalak "herriarrekiko hurbila eta gardena" izateko konpromisoa bete nahi du. Horretarako, webgunea "tresna garrantzitsutzat" jo du udalak. "Gainera, datozen urteetan atari honen edukietan eta zerbitzuetan sakontzen jarraitzeko asmoa dugu. Horretarako ere herriarren iritzia kontuan hartuko ditugu". Bakaikuko Udalaren webgunearekin, Sakanako hamabost udalerrietatik dozena bat dira Interneten ataria dutenak.



Itsasoa zeharkatzen ari den migratzaileen ontzia. NAFARROAKO GOBERNUA

Migrazioa, motibazioez eta arriskuez ari den erakusketa

Plazak 'Errefuxiatuak: bizitzeko ihes egin behar' erakusketa hartuko du gaurtik hilaren 25era arte

IRURTZUN

Nafarroako Gobernuako Politika Migratzaileen Zuzendaritza Nagusiak sortutako *Errefuxiatuak: bizitzeko ihes egin behar* erakusketa Irurtzunera iritsi da gaur. Foru administrazioak Errefuxiatuen Munduko Eguna ospatzeko sortu zen erakusketa, eta bere edukien artean, besteak beste, 2018an Gibraltarko itsasartean erreskatatutako patera bat du. Itsasontzi hori Trafalgar lurmuturretik 4 miliara aurkitu zuten, Cadizen. 5 metro luze eta 2 metro zabal dituen patera horretan jatorri magrebtarreko 55 pertsona zeuden; horietatik 24 adingabeak ziren eta 2 emakumeak. 10 metro karratutan hainbeste pertsona pilotuta irudikatze hutsak egoera horretan itsasoratzeak dakarren arrisku handiaren berriematen du. 2018an 768 pertsona hil ziren penintsulara iritsi nahian.

Itsasontziarekin batera, Ivan Benitez, Unai Beroiz, Daniel Burgui eta Maite Hernandez Mateo kazetaritza argazkilari nafarren irudiak daude ikusgai, errefuxiatuen jatorrizko herrialdeetatik ihes egiteko motibazioak eta migrazio bidean dituzten arriskuak islatzen dituztenak. Argazki horiek munduan asiloa eta babeslekua eskatzen duten pertsonen buruzko datu, haien istorio eta sentimenduak dituzten testuekin osatzen dira.


13 inpaktu irudi

Erakusketan 13 irudik osatzen dute. Haien artean, Siriako ge-

rrako eszenak, beraien sexu izaeragatik jazarritako pertsonen erretratuak edo Turkiatik eta Greziaraino Mediterraneoan zeharkatzeko ontziratzen diren baldintza gogorrak daude. Testua eta irudiak inprimatu diren olanak hesietan jarri dira, bizitzeko ihes egiten duten pertsonen beren bideetan aurkitzen dituzten horma eta alanbre hesiak sinbolizatzen. Minuturo, mundu osoko 24 pertsonak beren jatorrizko herrialdea utzi eta errefuxiatu bihurtzen dira.

Pertsona horiek dira Mediterraneo itsasotik, patera erreskatatu zuten lekutik, ihes egiten duten herrialdeetarako garmatzen argazki ibilbideko protagonistak. Aita Mari itsas salbamenduko itsasontziak egindako erreskateen Unai Beroizen argazkiak ikus daitezke. Dani Burgik Europara joateko bi migrazio bide ezagun islatzen ditu: Lesbos uhartera Turkiatik iristea, eta "Balkanetako ibilbidea".

Maite H. Mateok, berriz, bere sexu izaeragatik jazarritako egoeragatik bizia salbatzeko ihes egin behar izan zuten Takesha eta Mauriceren berri ematen du, homosexualitatea jazarritako edo hiltzera kondenatuta dagoen herrialdeetan jaio ziren. Eta Ivan Benitezen irudiak Ekialde Ertaina eta Latinoamerikakoak dira. Milaka pertsona gerretatik eta maretatik ihesi. Bere argazkietan Siriako hondakinak eta Mexiko eta Amerikako Estatu Batuak banatzen dituzten hormak ikus daitezke.



“Ze ona!”

**Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.**

berria

zuk badakizulako



Motxila 21 taldeko neska-mutilek oso ongi pasa zuten Uharte Arakilen, eta, aspaldiko partez, oholtzara igo ziren.

Motxila 21, Uharte Arakilgo oholtza gainera

200 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte Motxila 21 taldearen aldeko Uharte Arakilgo Zumbathoi Solidarioan. 6 monitore eta zumba dantzariekin batera, Motxila 21 taldeko neska-mutilak izan ziren festako protagonista handiak

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL
"Somos la banda Motxila 21, venimos hasta aquí a meter mucho ruido..." euren kanta ezagunena

kantatu orde, bozgorailuetatik ozen entzuten zen doinuari segika monitorearekin prestatutako zumba dantza emanaldi

ederra eskaini zuten Motxila 21 taldekoek larunbatean Uharte Arakilen. Eurak izan ziren Zumbathoi Solidarioko protagonistak.

Ekitaldiak aurretik hasi ziren, haurrendako lasterketa solidarioarekin, eta segidan hasi zen Zumbathoia. Bero egiten zuen, baina Elena, Itziar, Alberto, Marian eta Mayra monitoreek eta Leire Rabat gazteak prestatutako koreografiak dantzatzera animatu ziren bildutakoak. Bu-kaeran, saldutako sarreren zenbakien zozketa egin zen, eta aurreku batek itxi zuen ekitaldia. 200 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte Down Syndromea duten pertsonen ikusgarritasuna emateko ekimenean.

Pandemia, "bereziki gogorra"

Nafarroako Down Syndromearen Elkarteko Mari Jose Leoz elkarteko presidenteordeak azaldu zuen "pandemia bereziki gogorra" izaten ari dela Down Syndromea duten pertsonen. "Neska-mutiko hauek sozializatzeko zeuden jarduera asko bertan behera geratu dira, eta hori da euren gehien kostatzen zaiena, sozializatzea. Geldialdi bat egon da, eta berriro ere martxan hastea kostako da" adierazi zuen. Pertsona hauek lan munduan integratzeko programa gehienak ere geldirik daudela gaineratu zuen. "Gizartearen babesa ezinbestekoa

da gazte hauek, nor bere ezau-garriekin, aisialdian eta lan munduan garatzeko aukera izan dezaten eta bizitza independente bat bizitzeko gai izan daitezen. Euren bizitzako etapa guztietan babesa behar dute" azpimarratu zuen. Horregatik, Uharte Arakilgo ekimenarekin "oso eskertuta" zegoen. "Halako ekimenak garrantzitsuak dira, euren behar dituzten jadieretarako gero eta baliabide gutxiago daudelako eta gure ekimenak antolatzekeo babesa behar dugulako".

Motxila 21 taldea heurenendako "oso garrantzitsua dela" nabarmendu zuen Leozek. "Gazte hauek beti euren senitartekoez egiten dutenaren atzetik ibili izan dira, baina taldea euren da. Horregatik, taldea bizirik egotea garrantzitsua da beraieiendako. Motxila 21ek erakutsi du, interesa badute, gizartearen laguntzarekin, edozer gauza egiteko gai direla" gaineratu zuen.

Zahartzaroa lantzea elkartearen beste helburu bat da. "Down Syndromea duten pertsonen bizitza laburra zuten lehen, 40 urte ingurukoa, eta orain batez bestekoa 60 urtekoa da. 20 urte horiek diseinatu gabe daude" aitortu zuen Mari Jose Leozek.

"Halako ekitaldiek sekulako indarra ematen digute"

AINHOA LIZARRAGA ETXEBERRIA MOTXILA 21 TALDEKO KIDEA

Ainhoa Lizarraga Etxeberria Motxila 21 taldeko akordeoi jolea eta boluntarioa da. Bere ahizpa Aintzane taldeko saxofoi jolea da, eta Andoni Zilbeti Motxila 21eko saxofoia eta gitarra-abeslaria.

Zer moduz Uharte Arakilgo Zumbathoi Solidarioan?

Goiza zoragarria izan da, energiaz beterikoa, oso-oso dibertigarria. Primeran pasatu dugu. Motxila 21eko neska-mutilak pozez zoratzen egon dira: euren kantuko koreografia prestatu dute monitore baten laguntzarekin eta oso gustura ibili dira.

Pandemiak guztia gelditu du, baina Motxila 21 taldea ere.

Bai, urte eta erdi daramagu taldean entseatu gabe eta kontzertuak eskaini gabe, 2020ko martxotik. Bitarte horretan disko berria atera dugu, *Ama Lurra, Madre Tierra*, grabazio egunean beharrezko osasun neurriak bete



eta gero, baina horretaz gain geldirik gaude. Disko berria dugu, dei pila ditugu han eta hemen kontzertuak eskaintzeko eta oso gogotsu gaude, baina entseatu gabe ezin ditugu kontzertuak eskaini. Bestalde, Bizipoza fundazioarekin bideo klipa grabatu genuen.

Gutxika neurriak arinduko direla eta zuen lokalean entseatzeko aukera izango duzuela pentsatzekoa da.

Gure entsegu lokala txikia da, guretako nahikoa eta soberan, baina pandemia egoera dela eta, ezin ditugu eskatutako distantziak mantendu. Perkusioarekin, akordeoiarekin eta beste ez dugu arazorik; musukoa jarrita normal jo dezakegu, baina arazoa haize instrumentuekin eta ahotsekin dago, musukoa kendu behar dutelako. Dena den nik espero dut irtenbideren bat bilatu eta aurten entseatu ahal izango dugula. Gainera, taldekide guztiak, hamabostak, txertatuta daude. Hilabete honetan bertan Motxila 21 taldeko boluntarioak bilduko gara, ikasturtea prestatzeko.

Bakoitzak bere kabuz entseatzeko aukera izan du?

Saxoek, esaterako, entseatu beharra dute, bestela izugarri galduko lukete. Perkusioan badaude bizpahiru taldekide perkusio klaseetara joaten

direnak, eta gainontzekoak ez dakigu oso ongi nola dabilzan.

Guztiok dugu elkartzeko beharra, baina Motxila 21-ekoek ere. Gehienetan euren senitartekoez ikusten ditugu neska-mutiko hauek, eta Motxila 21 nolabait esanda bere kuadrilla da, ezta?

Beraieiendako Motxila 21 oso garrantzitsua da, beraiei taldea delako. Ez da nire ahizpa edo nire anaiaren zerbait, beraiei taldea da, beraiei asuntza, bere historia, bere emozioa, bere lana, bere guztia. Gauza askoren biltza bat da. Beraieiendako Motxila 21 demasa da, pasada bat, eta guretako ere, egia esan. Orain arte 200 kontzertu baino gehiago eskaini izan ditugu, baina Londonen eta Italian ere.

Uharte Arakilgo Zumbathoia bezalako ekimen solidarioak egotea eskertzekoa da.

Talde batek, boluntario gisa, elkarrekin bat laguntzeko halako egun bat antolatzea ikusgarria iruditzen zait. Arbizuko zumba taldekoak, monitoreak, Uharte Arakilgo Udala eta beste bildu, eta elkarrekin batera aurten Motxila 21 laguntzeko eta aurreko urtean beste elkarrekin batzuk laguntzeko halako antolaketa egitea oso polita iruditzen zait, goraipatzekoa. **Ekarpen ekonomikoak ongi etorriko zaizue, zuena bezalako egitasmoak sustatzeko baliabide ekonomikoak behar-beharrezkoak baitira, baina hori bezain garrantzitsua izanen da jendearen babesa sentitzea.**

Bai, horrek sekulako ilusioa ematen du, jende hori zure alde lan egiten ari dela ikusteak. Oso eskertuta gaude zumba taldekoez, monitoreekin, Uharte Udalararekin, eta baita ere Zumbathoia bere laguntza ematera etorri den jende guztiarekin ere. Horrek sekulako indarra ematen du. Eskerrik asko!



Kontsultategiengatik laguntzak

Udalenak diren herrietako kontsultategien eta kontsultategi lagungarrien aurtengo funtzionamendu gastuak finantzatzeko helburuz, Osasunbideak guztira 981.841,60 euro banatu ditu. Udalei eta kontzejuei dirua banatzeko garaian Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontuan izan du nolako kontsultategia den eta haren azalera. Ibarreko hamabost udalek eta kontzejuk guztira 43.634,5 euro jasoko dituzte.

Kontsultategiengatik jasotako dirulaguntza			
Osasun eskualdea	Herria	Azalera	Kopurua
Iruztzun	Hiriberri Arakil	44	2.002,00
	Ihabar	10	455,00
	Irañeta	36	1.638,00
	Uharte Arakil	162	7.371,00
	Arruazu	45	2.047,50
Etxarri Aranatz	Lakuntza	83	3.776,5
	Arbizu	79	3.594,50
	Unanu	42	1.911,00
	Dorrao	48	2.184,00
	Lizarraga	52	2.366,00
	Bakaiku	69	3.139,50
	Iturmendi	78	3.549,00
	Urdiain	58	2.639,00
Altsasu	Olatzagutia	179	8.144,50
	Ziordia	57	2.593,50

Udalak balorazio txostena jendaurrean jarri du

Lastailaren 7ra arte egonen da. horren bidez herriko ondasun higiezin bakoitzari balio bat ematen zaio

UHARTE ARAKIL

Legez, bost urtero berritu behar dira herrietako balorazio txostenak. Haren bidez udalak herriko lur eta eraikin bakoitzari balio bat ematen dio. Horretarako, metodo eta parametro tekni-

koak zehazten dira. Balorazio txostena egin ondoren Nafarroako Gobernuak Ogasunak ondasun higiezin bakoitzaren balioa zein den kalkulatu du. Balorazio txostena egiteko, udalak udalerria lau zerga eremutan banatu du:

Udalaren hezkuntzako laguntzen deialdia egina

Ikastetxeak, irakaskuntza kooperatibak eta guraso elkarteak aurkez daitezke deialdira. Dirulaguntza deialdiak lau laguntza lerro ditu. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 30eko 14:00etan despedituko da

ALTSASU

Altsasuko Udalak herriko ikastetxeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du. Heldu den ikasturtera begirako deialdia da eta bertara bere eskabideak ikastetxeek, irakaskuntza kooperatibek eta guraso elkarteek aurkeztu ditzakete. Laguntza deialdiak lau lerro ditu. Lehena, hezkuntza proiektu berritzaileendako dirulaguntza da, eta haren bidez udalak hezkuntza eskaintzaren eta zerbitzuen kalitatea, trukea, parte hartzea eta herritarrek baliabideak aprobetxatzea bultzatzeko programatzen diren hezkuntza ekimenak finantzatzeko izanzen da.

Bigarrena, berriz, berrikuntzaren bidez irakaskuntzara bideratutako materiala hobetzeko programen dirulaguntza da. Haren helburua da irakaskuntzara bideratutako eskola materiala hobetzea da, material hori berrituz eta, horrela, irakasleen eta ikasleen errendimendua hobetuz. Udalaren hirugarren laguntza lerroa eskolaz kanpoko euskarazko jardueren gastuetarako dirulaguntza da. Horrela, udalak diruz lagunduko du beste pertsona fisiko edota juridiko publiko edota pribatu batzuek bere gain hartzen ez dituzten gastuak, jarduera horiek ahalik



Altsasuarrak udaletxean sartzen. ARTXIBOA

eta ondoen garatzen direla bermatzeko. Eta, azkenik, eremu akademikotik kanpo gauzatutako diren euskarazko jarduerak egiteko, A, B eta D ereduko ikasleei zuzenduta daudenak. Horrekin Altsasuko Udalak lortu nahi duena da eskola eremuan euskaraz sustatzen laguntzea, jarduera ez akademikoen bidez.

Altsasuko Udalak laguntza deialdi horretarako 15.000 euro bideratu ditu, honela banatuta: lehen laguntza lerroarako 5.000euro, bigarrenarako 7.000, hirugarrenarako 2.000 eta lau-

garrenarako 1.000. Deialdiari buruzko xehetasun guztiak Altsasuko Udalaren www.altsasu.eus webgunean daude.

Salaketa

Astearte goizaldean parrandan zeuden batzuk Gure Etxea eraikineko erakusketa gelan eta ezkaratzean sartu eta han, antza, parranda egin zuten. Alkateak azaldu duenez, "haserre baino, pena ematen du, pena ematen dute". Jakinarazi zuenez, udalak Foruzaingoa salatatu zuen gertatutakoa.

Alde Zaharra, Etxebizitza atxikiak dituzten bizitegi eremuak, industria jarduerako eremuak eta herrigunetik kanpoko eraikinak.

Udalak balorazio txostena egin du aurrekoa 2005eko abenduaren 29koa baitzen. Txomin Uharte Baleztenak jakinarazi duenez, aldaketarako beste arrazoiak dira: "lurraren erabilera eta aprobetxamendu baldintzetan aldaketak izan direla eta dauden katastroko balioak egungo errealitatearekin bat ez datozela". Alkateak azaldu duenez, "txos-



Uhartearrak Felipe Gorriti kalean.

tenaren zatirik handiena Nafarroako Gobernuak egina du, oso araututa dago"

Uhartek gogorarazi duenez, "aurreko txostena eraikuntzaren boom betean egin zen eta lurren eta eraikinen balioak altu xamar zeuden". Berria egiterakoan "lur eta eraikinen artean zegoen aldea orekatu egin da. Eta tasak eguneratu egin dira. Aldatu direnak herritik kanpo dauden lur eta eraikinenak, baserrienak dira; igo egin dira oso baxu baloratu ta zeudelako".



ANA BALDA SANJUAN

Ekoizleak, artisauak eta jendea

Irurtzongo plazan eta Lizarra kalean lehen sektoreko ekoizleak eta Arbaso artisauak bildu ziren. Haurrendako jolasak izan ziren eta Izurdiagako Brun forjakoek burdina jendaurrean landu zuten. Taloak dastatzeko aukera izan zen, baita Arakilgo bertako nekazaritza landareei buruzko gida eta ibarrean jasotako zenbait fruta ezagutzeko aukera ere.

Intsumisioaren memoria

Iruñeko Baluartean, asteartean, 18:00etan "Nafarroako objektuaren eta intsumisioaren memoriari" proiektua aurkeztuko du gobernuak. Sakanako Antimilitarista Taldeko kideei egindako elkarrizketa kolektiboa dago tartean. Kide bat aurkezpenean izanen da. Hara joan nahi duenak inm@navarra.es helbidean eman behar du izena.



JOXE LACALLE

DUELA 25 URTE...



Bakaikuko historia liburu batean jaso

Bakaikuko barnetegira euskara ikastera etorri zen Pantxike Kontre-
ra sei urte lehenago. Bakaikuarrekin harremana egin zuen. Iturmen-
diko Udalak Santa Marinari buruzko historiari buruzko argitalpena
egin ondoren Bakaikuri buruz antzeko zer bait egin zitekeela otu zitzaion
Kontrerrari. Iruñeko artxiboetan datu bilketa egin zuen, baina gehienak
Bakaikuko herriko etxean opatu zituen. Margari eta Regina Urresta-
razu ahizpek ere zekiten guztia kontatu zioten. XVIII. mendetik XX.
mendera arteko gertaerak jaso zituen liburuan.


Itxasperrik Erroak jaialdia hartuko du

Irailaren 24an eta 25ean hainbat jarduera izanen dira. Publiko guztiei zuzenduta daude, baita familiei ere. Aforoa mugatua denez, aldeztu aurretik izena eman beharko da 'bizigarrinafarroa@gmail.com' e-postara idatziz edo 634 584 226ra hots eginez

ARAKIL

Bizigarri Elkartek, Arakilgo Udalaren laguntzaz, *Erroak* proiektua aurkeztuko du irailaren 24 eta 25ean Itxasperri. Kultura eta arte jaialdi hori lurraren sustraien eta landa eremu mugimendu berrien arteko sinergiak sortzeko helburuarekin sortu da, eta Arakilgo Udalari esker lehendabiziko jarduerak martxan jarriko dira. Udalak azaldu duenez, "ingurumenarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin, artearekin eta alderdi produktiboekin lotutako hainbat jarduera biltzen ditu egitarauak". Gaineratu duenez, "proiektu dinamikoa da eta herritarren parte hartzea eta inplikazioa funtsezkoak dira aurrera eramateko".

Egitasmoak bost helburu zehatz ditu. Batetik, "pertsonen naturarekin duten konpromisoa berreskuratzeko azpiegitura nahikoa duten jardunaldiak eskaintzea". Bestetik, "inguruko kultura, natura eta paisaia ondarea eta ondarea ulertzea, baloratzea, kontserbatzea eta ezagutaraztea". Horrekin batera, "paisaia soziala identifikatzea, Nafarroarendako eta erkidegoarendako berarendako mugari zibiko berri gisa; hiri eta landa kalitatearen adierazletzat hartzen den proiektua" izan nahi



Gidaren aurkezpenean. ARAKILGO UDALA

du. Gainera, "ingurumena, artea eta jasangarritasuna aztertzei ibilbideetan erreferentzia zio data eta lekua sortu" nahi dute. Azkenik, Erroak proiektuarekin "natura, espazio publikoa, arte sorkuntza, kultura, paisaiari buruzko ikerketak, lekuaren dokumentazioa... ardatz dituzten jardueren programa bat proposatzea, hausnarketa berriak sartzeko apustua egin" nahi dute.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, "Itxasperri natura eta artea lotzen dituen espazio naturala bihurtuko da, eta jasan-

Egitaraua

Irailak 24etik 26ra

- **17:30-20:30** 'Daroca. "OutThere" _La magia que inunda nuestros bosques' erakusketa.

Irailak 24, ostirala

- **18:00etan** Erroak proiektuaren aurkezpene erakusketaren mustutzearekin batera.

Irailak 25, larunbata

- **11:00** Interpretazio gida: Eduka natura.
- **18:00** Lantegia: estanpazio botanikoa.
- **20:00** Guarimba eta Makusai kontzertua.

garritasunaz hitz egiteko erreferentea". Aldi berean, Arakilgo Udalak *Bertako barietateen gida* banatuko die arakildarrei. Joan den asteko aurkezpenean 25 bat pertsona izan ziren Itxasperri. Gainera, ibarreko etxe guztiei ale bana oparituko die. Elkartetik gaztigatu dutenez, "ezagutza tradizionalari eta lurrari lotutako proiektu hori gure ikuspegiarekin bat egiten du".

San Migelen bederatziururenaren atarian dago

Asteartetik hilaren 29raino egunero 18:00etan mezak izanen dira. Pilaketak saihestu nahi dituzte

SAKANA

Pandemia garaiko bigarren San Migel eguna biziko dugu aurten. COVID-19 gaitza oraindik gure artean dugunez, Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradia kezka begiratzen dio San Migel eguna-

ri. Jende askorendako egun handia da eta Aralarko santutegira joateko ohitura oso errotuta dago. Kofradiako lehendakari Joxe Mari Ustarrozek gaztigatu duenez, "koronabirusak pandemia erabat desagertu arte, eskatzen

dugu jendea ahalik eta gehien banatzea egun hauetan izanen diren elizkizunetan".

Asteartean hasiko da San Migelen bederatziurrena Aralarko santutegian eta egunero mezak izanen dira santutegian, 18:00etan. San Migel egunean elizkizunak 09:00etan, 10:00etan, 11:00etan, 12:30ean (meza nagusia), 17:00etan eta 18:00etan izanen dira. Jakinik sinestun eta Aralarko santutegia maite duen jende ugari dagoela, "egokiena, jendea elizkizun guztietan ahalik eta gehien banatzea".

"Zer egin erabakitzea garrantzitsua da"

MAITANE INTXAURRAGA URIBARRI ARBIZUKO PARTE HARTZE ZINEGOTZIA

Eskola zaharrekin zer egin erabakitzeke parte hartze prozesua eraikina bisitatzeko aukerarekin abiatuko da: gaur, 18:30etik 19:30era eta bihar, 11:30etik 13:00etara

Eneida Carreño Mundiñano / Alfredo Alvaro Igoa ARBIZU

Arbizuk eskola berria mustu zuen 2019ko irailaren 9an. Kale Nagusitik Beriain kalera pasa zen ikastetxea. Eraikin zaharri, behin behinean, beste erabilera batzuk eman dizkiote. Baina Arbizuko Udalak erabaki du badela garaia berea den eraikin horrekin zer egin erabakitzeke. Horregatik, parte hartze prozesua bultzatu du, hutsik dagoen eraikina herritarren esku utzi eta haiek erabilera ugari eman diezaioten.

Zergatik herriari hitza eman?

Iruditzen zaigulako aritzeko modu normala eta naturala izan beharko litzatekeela edozein instituzioetan. Eta are gehiago udaletxeetan, herritarrengandik hain gertu gaudelako. Gure programan jarri genuen gutxienez egiturazko erabakietan herritarren parte hartzea eta erabakiak sustatuko eta lehenetsiko genituela. Kasu honetan egiturazko erabaki bat dela iruditzen zaigu. Eskola zaharrak ditugu, eraikin horrekin zer egin erabakitzea garrantzitsua da Arbizu moduko herri txiki batendako. Are gehiago herri erdian kokatuta dagoenean, eta erabilera publikorako hain toki gutxi daukagunean.



Maitane Intxaurreaga Uribarri, eskubian, bi zinegotzirekin. ARTXIBOA

Beste noizbait halakorik egin da Arbizun?

Udaberrian herri galdeketa egin genuen estalope bat jartzeko. Bi galdera izan ziren: estalopea behar genuen edo ez. Gehiengoak baiezkua bozkatu zuen. Eta orduan bi estalope aukera eman genituen. Informazio hori guztia partekatu ondoren, arbizuarrok herri galdeketa parte hartzeko aukera izan genuen. Eta erabaki genuen estalopea nahi genuela, eta zein estalope klase nahi genuen. **Nolakoa da eskola zaharren eraikina?**

Interesgarria da. Batez ere herri erdian dagoelako. Irisgarria delako. Planta bakarra da. Argitsua. Obra gutxi eginda aukera handiak ematen dituela iruditzen zaigu. **Erabilera publikoa izanen du?** Bai, herritar guztiendako irekita dagoen eraikin bat izatea nahi genuke. Hori nola gauzatzen den? Ea parte hartze prozesuan zein ideia ateratzen diren, eta nola gauzatzen diren.

Zein metodologia izanen du parte hartze prozesuak?

Lehendabizi ideia bera herritarren artean landu behar da. Pix-

ka bat luzeagoa izanen da eta parte hartze aktiboagoa eskatuko du. Ahalik eta herritar gehienak parte hartzea animatu nahi genituzke. Denon arteko iritzia biltzen dituen proiektua nahi genuke. Hasteko, aurkezpen bat egin dugu etxeetara oharra bidaliz, www.arbizu.eus webgurean eta sare sozialen bidez zabalduz. Gaur, 18:30etik 19:30era, eta bihar, 11:30etik 13:00etara, eskola zaharrak bisitatzeko aukera egonen da. Ate irekien jardunaldia egingen da, jendeak eraikinak zein aukera ematen dituen ikus dezan. Heldu den astean etxeetara inkesta pasako dugu. 16 urtetik gorakoek papelean edo online erantzuteko aukera izanen dute. Bakoitzak dituen ideiak jasotzea nahi genuke: eraikin hori zertarako erabili daitekeen, nola...

Eta inkestekin, zer?

Parte hartze prozesuetan aditua den Elhuyar enpresa kontratatu du udalak. Hark gidatutako talde eragilea dago. Bertan bi zinegotzi gaude: Aitziber Arbizu Garmendia eta ni. Eta herritar gisa Katrin Gineak parte hartzen du, kultur gintzan, dinamizazio lanetan, komunikazioan eta eskarmentu handia duelako. Talde horren funtzioa da parte hartzea erraztea eta behar diren lanak egitea. Elhuyarrek inkestekin laburpena egingen du eta hura herri batzar handi batera eramaten dugu. Lastailaren 23an izanen da, frontoian. Elhuyarrek planteatutako duen metodologiaren bitartez ideia nagusiak landuko dira. Eta ikusiko dugu ideia orokor baten inguruan adostasuna lortzen trebe garen. Hala bada, hori izanen da udalak garatuko duena, ahalik eta azkarren. Bizpahiru ideia edo gehiago baleude, orduan herri galdeketa egingen

genuke. Eta erabakia izanen litzateke gero udalak garatuko lukeena.

Proposamen guztiak ez dira egin-garriak izanen.

Jakina, hor Guggenheim bat ezin da egin. Horrelako proiektu bat sustengatzeko dirurik ez dugu. Zeren kontua ez da egitea, denboran sustengatuko den proiektu bat izan behar du. Taldearen lana da ideia guztiak jasotzea, eta ideia nagusiak aurkeztuko dira.

Zein premia ditu Arbizuk?

Udalan ikusi dugun premia nagusia da jendea biltzeko, hainbat jarduerara egin ahal izateko espazio bat edukitzea. Ikus-entzunezkoak, zinema, antzerkia, ikastaroak... Gaur egun gauza horiek guztiak udaletxe-ko areto nagusian egiten saiatzen gara. Besterik ez daukagu. Txiki gelditzen da. Bakarra da. Ezin dira bi ekintza batera egin. Ikus-entzunezkoendako ez dago prestatuta. Mugatuta dago. Eskola zaharrak aukera ematen du espazio handi bat egiteko. Baita espazio mugikorrek sortzeko, handitzeko, txikitzeke. Guk hori ikusten dugu. Baina ikusi beharko da herritarrek premia bera duten edo ez. Guri prozesu honetatik gehien inporta zaiguna da zenbat herritarrek parte hartzen duten. Ea gai garen herritarrek aktibatzeko eta gure herriko gauza garrantzitsuetan erabakitzeke aletxo hori jar dezaten. Beraz, arbizuar guztiak parte hartze-ara animatzen ditugu.

"ESKOLEN ERAIKINA HERRITAR GUZTIENDAKO IREKITA DAGOEN ERAIKIN BAT IZATEA NAHI GENUKE"


GUAIXE
618 882 675

BIKAIN GARAJEA

Mekanika Elektromekanika Serie 100 pintura prototipoa Autokarabana eta furgoneta saila
948 460 037 Arbizu


FLORES S.L.

Utubarr industrialdea Arbizu 948 460 499 Nafarroako berezko txistorra

Sakana Itsasi euskaltegia
Izena emateko azken eguna: irailaren 21a
Gartzia Ximenez 46, behe, ALTSASU
sakana@ae.eus
948 468 258
DIRULAGUNTZAK
Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua: BEKAK

Sakanako




Egin zaitez
bazkide!

Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675 | admin@guaixe.eus



- **ALTSASU**
IORTIA
- **ARBIZU**
LONBREN DENDA
- **ARRUAZU**
OSTATUA
- **BAKAIKU**
ESTANKOA
- **ETXARRI**
ARANATZ
BELEIXE IRRATIA
- **IRURTZUN**
PIKUXAR
- **LAKUNTZA**
OGIBERRI
OKINDEGIA
- **LIZARRAGA**
BARGAZPI TABERNA
- **OLAZTI**
CLINCKER TABERNA
- **UHARTE ARAKIL**
MENDINUETA
HARATEGIA
- **URDIAIN**
LOPEZ
DE GOIKOETXEA
HARATEGIA
- **ZIORDI**
UDALETXEA



David Oroz Alonso eta Bernardo Ziriza Lopez erdian. UTZITAKOA

Utzubar EKO guneko konpostatze planta mustu dute

Urtean 1.000 tona hiri hondakin organiko tratatu ditzake. Sakanako eta Mendialdeko 30 herriri ematen die zerbitzua

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko presidentearen eskutik, Lurralde Kohesiorako kontseilari eta Hondakinen Partzuergoko presidente Bernardo Ziriza Perezek ibarreko konpostatze instalazio berria ezagutu zuen atzo. Haiekin baterako Nafarroako Hondakinen Partzuergoa osatzen duten gainerako mankomunitateetako ordezkariak izan ziren.

Mank-ek konpost planta apirilaren 15ean jarri zuen martxan. Materia organikoa tratatzeko plantak urtean 1.000 tona hondakin tratatzeko ahalmena du. Horrekin saihestuko da Sakanan jasotako materia organikoa Caparrosoko biogas lantegiraino eramatea. Beraz, materia organikoa Utzubar EKO Gunean tratatuz, 684,5 tona 100 kilometrotara garraiatzea eta 7.953,61 kilo CO₂ isurtzea eragozten da. Gainera, Mank-ek 31.875,38 euro aurrezten ditu urtero.

Planta berriak 800.000 euroko (BEZ kanpo) aurrekontua izan du eta Nafarroako Gobernuak finantzatua Toki Inbertsioen Planaren bidez 620.000 euro bideratu ditu. Gainerako ekarpena Nafarroako Hondakinen Partzuergoaren eta Trantsizio Eko-logikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren kontura (95.000 euro) izanen da.

Bisitan materia organikoa konpost bihurtzeko egiten den prozesua ezagutu zuten. Deskargatu ondoren, zati horretara

ra bota diren elementu desegokiak azaletik kentzen dira, labaintzeko eta birrintzeko makinekin prozesatzen da, eta inausketak birrintzetik datorren material egituratzailearekin nahasten da. Deskonposizio fasea materia organikoaren sekzio trapezoidaleko piletan egiten da, 55 eta 70 gradu arteko tenperaturan, eta aldian behin iraulketak eta aireztapenak egiten dira eta ondoren, zahar-tzapen etapa helduko da.

Ondu ondoren, konposta bahe-tzen da eta kamioian transferentzia instalaziora eramaten da. Han, azken produktua metatzen da substratu gisa erabiltzeko. Konpost hori doan eskaintzen dien Mank-ek hiru sektoreri: hondakin zerbitzua-ren etxeko erabiltzaileei, udalei, eta nekazari zein abeltzainei. Joan den urtean 200.000 kilo konpost banatu zituen 750 sakan-darren artean.

Ezaugarriak

Utzubar EKO Guneak azpiegitura berria 14.000 metro koadroko lursail batean dago. Plantak 25,20 metro zabal eta 100 metro luze ditu, hau da, 2.520 m²-ko azalera eraikia duen oinplano angeluzuzeneko eraikin estali bat da.

Materia organikoaren bilketan Etxarri txapeldun

Nafarroako Gobernuak antolatutako lehiaketa batean Etxarri herrialdeko erregistro onena lortu du: herritar bakoitzeko 34,29 kilo materia organiko berreskuratu dute bi hilabetetan. 2027an materia organiko guztiaren %70 bereiztuta jaso behar da

ETXARRI ARANATZ

Hondakinen gaikako bilketan sentsibilizatze, eta, bereziki, materia organikoaren birziklatzeari bultzada emateko, Nafarroako Hondakin Partzuergoak Organikopa lehiaketa antolatu zuen. Haren helburua nafarren artean materia organikoaren banaketa sustatzea zen. Izan ere, etxeetan sortzen diren hondakinen %42 baita materia organikoa eta egoki banatuz gero hura konpost bihurtu baitaiteke, eta hondakindegian errefusa gutxiagok bukatu dezakeelako.

2027an sortutako materia organiko guztiaren %70 bereizteko konpromisoa hartu du Nafarroako Hondakinen Planak. Gaur egun, batez bestekoa %33koa da Nafarroan.

Sakanako Mankomunitateko Hiri Hondakinen Zerbitzuak bat egin zuen ekimenarekin eta Etxarri Aranatz eta Altsasuren arteko materia organikoaren bilketa lehia antolatu zuen. Etxarri Aranatz astelehen eta ostegunetan posteetatik bildutako gai organikoaren pisua aztertu zuten astero eta Altsasun, berriz, edukiontzi marroien bitartez jasotako. Maiatzaren 3tik gailaren 3ra arte egin zituzten neurketak. Neurketa etxarriarrek irabazi zuten, herritar bakoitzeko 34,29 kilo materia organiko berreskuratu dute bi hilabete horietan. Bai Etxarri Aranatz bai Altsasun jasotako materia organikoa kalitate onekoa da eta Utzubar EKO Gunean konpost bihurtzen ari da.

Sari banaketa

Partzuergoaren ekimenen Nafarroako hamar mankomunitatek eta udal batek parte hartu zuten, guztira Nafarroako 92 herri parte hartu dute. Gobernutik azaldu zuten, "ekimenari esker, batez beste %24 igo da berreskuratutako materia organikoko kopurua. Gainera, aurreko ur-



Sakanako ordezkariak saria jasotzeko momentuan.

MATERIA ORGANIKOA %70 BEREIZITA JASO BEHAR DA 2027RAKO; GAUR EGUN NAFARROAN %33 DA

teko datuekin alderatuta, gainerako edukiontzira botatuko hondakinak %15 murriztu dira, zabartegira zuzenean doan bolumena eta horren ondoriozko CO₂ isurketa murriztuz". Lehiaketen sari banaketa Etxarri Aranazko plazan egin zen atzo, Bernardo Ziriza Perez Lurralde Kohesiorako kontseilaria bertan zela. Saridunek 300 tona plastiko eta kapsula birziklatu baino gehiagorekin egindako hiri altzariak jaso zituzten.

Sakanari dagokionez, Etxarri Aranazko Udalaren izenean Silvia Marañon Chasco alkateak 5.000 euroko balioa duen saria jaso zuen. Honakoa zehazki: Culebreteko hondakindegitik jasotako plastikoekin egindako bi mahai eta bi aulki jaso ditu. Silvia Marañon Chasco alkateak jakinarazi duenez, "autokarabandako gunean ondoan jarriko

dira, merendero modukoa izanen da". Bizikletak aparkatzekoak ere jaso ditu Etxarri Aranazko Udalak sari gisa, ikastolako patioaren ondoan jarriko dituzte horiek. Horrekin batera, zaka-rrontziak jaso ditu. Eta Iltzarbe ibarrean jasotako kafe kapsulekin egindako bi edukiontzik osatzen dute saria. Azken bi horiek kafe kapsulak jasotzeko dira. Partzuergoak ere aitortza egin zion Altsasuri. Zehazki, Otadiako auzo konpostagailuaren martxa egokiaz arduratzen boluntarioak, Martin Zelaia, jaso zuen aitortza.

Informazioa

Sakanako hondakinen kudeaketari buruzko informazioa jaso, zalantzak argitu edo izena emateko 900 730 450 doako telefonora hots egin edo 'info@sakana-mank.eus' helbide elektronikora idatzi daiteke.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 17

ARRUAZU Herriko estrategia plana etorkizuneko Arruazu irudikatzena. Gazteekin bilera.
18:00etan, Iturgain elkartearen atzeko belardian edo herriaren etxean (eguraldiaren arabera).

ALTSASU Gazte gunearen ate irekien jardunaldia.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunear.

ALTSASU Sukarrafest jaialdia: Haizkan, Atzapar Rock eta Daeshtxarge taldeak.
18:00etan, Iortia zabalgunean.

ARBIZU Eskola zahararen inguruko parte hartze prozesua. Eskola egon den eraikinean ate irekiak.
18:30etik 19:30era, eskola zahararen.

URDIAIN Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialistaren aurkezpena. Ondoren, pintxopotea.
19:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 18

LAKUNTZA Mendi ibilaldia eta ipar martxa Aralarren.
10:00etan, guardetxearen aparkalekuan.

ALTSASU Bidexkak Altsasun zehar, hiru mendizerrak eta Basaluze Dorreko maketaren aurkezpena.
12:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ARBIZU Eskola zahararen inguruko parte hartze prozesua. Eskola egon den eraikinean ate irekiak.
10:30etik 13:00etara, eskola zahararen.

ARRUAZU Herriko estrategia plana etorkizuneko Arruazu irudikatzena. Emakumeekin eta adinekoekin bilera.
11:00etan, Iturgain elkartearen atzeko belardian edo herriaren etxean (eguraldiaren arabera).

ALTSASU Gazte gunearen ate irekien jardunaldia.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunear.

IGANDEA 19

ALTSASU Gazte gunearen ate irekien jardunaldia.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunear.

OLATZAGUTIA Mariachi: Imperial elegancia mexicana taldearen kontzertua.
18:00etan, San Migel plazan edo frontoian (eguraldiaren arabera).

ALTSASU Juntos antzezlanaren emanaldia. Sarrerak agortuta.
19:30ean, Iortia kultur gunear.

ASTELEHENA 20

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Gazte gunearen ate irekien jardunaldia.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunear.

ASTEARTEA 21

BAKAIKU Yoga jardunaldi irekia



UTZITAKOA

ALTSASU Bidexkak Altsasun zehar, hiru mendizerrak eta Basaluze Dorreko maketaren aurkezpena.
Irailaren 19tik 23ra, Gure Etxea eraikinean

ETXARRI ARANATZ Etxepare sarietako album ilustratu irabazleen erakusketa.
16:30etik 20:30era, liburutegian.



ARTXIBOA



UTZITAKOA

IRURTZUN Errefuxiatuak: bizitzeko ihes egin behar erakusketa. Nafarroako Gobernuak antolatuta.
Irailaren 17tik 26ra. Plazan.

HIZKETAN
beleixe
107.3 FM

Elkarrikerketa guztiak
www.guaixe.eus

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Altsasu (Gau Hura) film dokumentalaren emanaldia
Larunbata 18: 17:00
Larunbata 18: 19:30

García y García gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 23: 19:00

OSTEGUNA 23

BAKAIKU Bertso saioa: Sustrai Colina eta Idoia Granizo.
18:00etan, barnetegian.

ALTSASU Gazte gunearen ate irekien jardunaldia.
18:00etatik 20:00etara, Intxostiapunta gazte gunear.

ETXARRI ARANATZ Skabidean taldearen kontzertua.
20:00etan, plazan.

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • **ALTSASU** • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860





Liburu bat hutsetik egiten

Sakanako Mankomunitateak *Liburu bat egingo dugu* sormen tailerra antolatu du Arbizuko eta Ziordiko liburutegietan. Arbizuko tailerra irailaren 21ean izanen da, 17:00etatik 18:30era, eta Ziordikoa urriaren 5ean izanen da, 17:00etatik 18:30era. Tokiak mugatuak dira, beraz, aurretik izena eman behar da liburutegietan bertan edo liburutegia@arbizu.eus Arbizuko tailerre-rako eta ziordialib@cederna.es Ziordirako. 8 eta 12 urte bitarteko haurrendako tailerra da.

Tailerrak bi atal izanen ditu: liburugintzaren historiari buruzkoa eta alde praktikoa. Liburu bat, objektua, egiten ikasiko dute parte hartzaileek, hau da, ez dute idatziko, baizik eta liburu baten orriak nola josten diren, azala nola egiten den eta abar ikasiko dute. Egindako liburuxka etxera eraman dute. Tailergileak Ana Urres-tarazu euskal editoreen arduraduna eta Carmen Elvira Pamiela argitaletzeko editoreetako bat izanen dira.

JAIOZAK

- **Ghaith Ballouk Hsikkou**, irailaren 10ean Altsasun
- **Nora Aboufaris Aboufaris**, irailaren 10ean Olaztin
- **Sofia Iruiria Peru**, irailaren 12an Irañetan

EZKONTZAK

- **Alfredo Prieto Pariente eta Mari Carmen Mata Ramirez**, irailaren 7an Irurtzun
- **Alvaro Solano Alonso eta Patricia Aldunate Tirapu**, irailaren 11n Irurtzun
- **Maria Eugenia Elustondo Labari eta Oscar Alonso Goñi**, irailaren 13an Irurtzun

HERIOTZAK

- **Pedro Garcia Bolinaga**, irailaren 14an Iturmendin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOA

LAN ESKAINTZAK

Liburuzain eta kultur kudeaketako laguntzailer lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa Arbizun: C mailako lanpostua eta euskara ezagutzea ezinbestekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea irailaren 22 amaitzen da. Oinarriak eta argibideak www.arbizu.eus web orrian, Arbizuko Udaletxean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago ere.

IKASTAROA

Irurtzongo ikastaro eskaintza: Antzerki tailerra (asteazkenak 17:00-19:30), Irakurketa taldea (hileko 1. go osteg. 18:00-19:30), Marraketa (Astelehenak 16:00-19:00), Mantentze gimnasia (astearteak-ostegunak 17:30-18:20), Hipopresioak (astearteak-ostegunak 17:00-17:55), Pilates (astearteak-ostegunak 18:00-18:55/19:00-19:55), Bizkortzea / GAP (astearteak-ostegunak 18:30-19:20), Kirol entrenamendua (astearteak-ostegunak 19:30-20:20), Gorputz jarrera (astelehenak 16:45-18:45), Spinning (astean bi egun/ maila eta ordutegi ezberdinak). Izena emateko epea irailaren 27an amaitzen da. Informazio gehiago Kultur etxean, 948 600 412 ifnoan, kulturetxea@irurtzun.eus edo www.irurtzun.eus web orrian.

Arakigoko ikastaro eskaintza: Yoga Ihabarren, astelehenetan eta ostegunetan, bi txandatan: 17:00 - 18:30 / 18:30 - 20:00 (Urriaren 4tik hasita urtarilerara arte, errolatuentzako prezioa 80 / ez errolatuentzat 90), Soinketa Hiriberrin asteartetan eta ostegunetan, 18:00 - 19:00 (Urriaren 5etik ha-

sita urtarilerara arte, errolatuentzako prezioa 45 euro / ez errolatuentzat 55 euro), Eskulanak Etxarrenen astelehenetan 10:30 - 12:30, urriaren 18tik maiatzaren 30era. Izena emateko epea zabalik 634 584 226 - 948 500 101 ifnoetara deituz, araki@araki.net postetara idatziz, irailaren 30era arte. Aditi! Hilabeteko tailer ibiltariak eginen dira.

Nafarroako Gobernuak Oinarritzko gaitasun digitalak ikastaroa antolatu du Irurtzun: Irailaren 20tik 24ra izanen da, astelehenetik ostiralerara, 09:00etatik 14:15era arte, Irurtzongo kultur etxean. Dohainik den ikastaro horren inguruko informazioa nahi duenak, edo informazioa eskuratu nahi duenak 948 600 412 telefonora hots egin edo kultur etxetik pasatu daiteke.

OHARRAK

Altsasuko Txantxari Iudoteka: Izena emateko epea zabalik irailaren 21a arte, 948 012 012 ifnora deituz edo www.altsasu.net web orrian. Ordutegiak: 2013-2009 (astelehenak, asteazkenak eta ostirala 15:30-16:45 eta astearte eta osteguna 18:30-20:00, urteko kuota bakarra 5 euro), 2014-2017 (astelehenetik ostiralerara 17:00-18:15, astean bitan 49,10 euro eta hirutan badoaz 62,30 euro) eta 2021-2018 (astelehenak, asteazkenak eta ostirala 18:30-20:00, 0-3 urtetako saloak doakoak izango dira). Informazio gehiago 948 467 471 / iudoteka@altsasu.net.

Olazitiko haurrendako zapiak: 2019ean eta 2020ean jaiotako haurrei zapi banaketa. Jaso nahi dutenek udaletxean izena

eman beharko dute eta baimenak sinatu irailaren 20a baino lehen. Zapiak irailaren 25ean banatuko dira, 12:30ean, San Migel plazan.

Etxarri Aranatzeko tresna zaharren bilketa: Udalak baratzeak, etxeko, soroko etabarreko tresna zaharren erakusketa egin nahi du eta horretarako herri-tarrei deia egiten die etxean izan ditzaketen tresnak uzteko. Tresna guztiak izendatuko dira eta erakusketaren ondoren jabeek itzuliko zaizkie. Irailaren 24ra arte eraman ditzakezu kultur etxera, 18:00etatik 19:30era.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan errolatutako 16 urtetik gorako pertsonen zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira irailaren 30a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta Udaletxean.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa IAT Sakanan herri: Irailak 20 eta 21 Altsasun / Irailak 22 Olaztin / Irailak 23 Ziordian. Herri guztietan ordutegi bera izango dute, 10:00etatik 14:30ra.

Irurtzun 0-3 eskolatarako dirulaguntza: haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago irailaren 30era arte. Baldintzak eta aurkeztu behar diren dokumentuei buruzko informazioa udal webgunean www.irurtzun.eus eta Udaletxean daude.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Jon Mariezkurrena, Danel Elezkano, Aimar Olaizola eta Jose Javier Zabaleta, atzoko material aukeraketan. ASPE

Txapelarekin erretiratzen lagundu nahi dio

PILOTA Olaizolak eta Zabaletak Masters CaixaBank Torneoaren finala jokatu dute, igandean, Elezkanoren eta Mariezkurrenaren kontra. Goizuetakoak erretiroa iragarri du, eta "txapela lortzea oso polita" litzatekeela aitortu du Zabaletak

Aimar Olaizolak erretiroari data jarri dio: azaroaren 13an izanen da, hain zuzen ere 42 urte betetzen dituen egunean, eta bere jaioterrian, Goizuetan. Asteazkenean Bilbon eman zuen bere agurraren berri aurrelari handien zerrendan dagoen pilotariak, eta geroztik pilota munduan ez dago beste konturik. Irujo izan zen bere areririk sendoa, eta biek pilotan urrezko garai bat itxi zuten. Olaizolak adierazi zuenez, "beti esan izan dut maila onean nagoenean erretiratu nahi dudala, eta orain nahiko ongi jokatzen ari naiz".

Eta hain zuzen ere, Aimar Olaizola une honetan Jose Javier Zabaletarekin batera jokatzen ari da Masters CaixaBank Torneoan. Txapelketa ona eginda, final handirako txartela lortu du bikoak. Baita Elezkanok II.ak eta Mariezkurrenaren II.ak ere. Torneoak final ikusgarria espero zenak orain epika kutsua hartu du; izan ere, Aimarrek bere agurra iragarri eta gero, igandean

Gasteizko Ogetan jokatu den Masters CaixaBank Torneoak finalak izen handiagoa du orain, Olaizolak jokatu duen azken final garrantzitsua izango delako. Txapel hori buruan jantzita erretiratu nahiko luke goizuetarrak, eta, jakina, horretarako Jose Javier Zabaletaren babes guztia izanen du.

Txapel oso berezia dago jokoan Atzelari etxarrendarrak kazetari azaldu dienez, "polita litzateke Masters CaixaBankeko txapela lortzea; pilotari handienetako batekin txapel hau janztea oroimen ederra litzateke". Zabaletak aitortu duenez, "partida garrantzitsua izango da, bai berarendako eta baita niretako

"HANDIENETAKO BATEKIN TXAPEL HAU JANZTEA OROIMEN EDERRA LITZATEKE"
JOSE JAVIER ZABALETA

ere, elkarrekin joka dezakegun azken torneo baina". Etxarrendarrak azpimarratu du urte hauetan guztietan goizuetarra gorenean egon dela, onenen artean. "Trujorekin batera jokatzen zituen partidak beti ziren oso bereziak, zaletasuna pizten zutenak" gogoratu du.

Masters CaixaBank finaleko jaialdia 17:00etan hasiko da, Ezkurdiak eta Tolosak Artolaren eta Imazen kontra jokatu duten partidarekin. Gero final handiaren txanda iritsiko da. Final oso gogorra espero da, bai Olaizola-Zabaleta eta baita Elezkanok-Mariezcurraren ere sasoi betean eta joko bikainarekin iritsi direlako. Bi atzelarien lehia handia espero da, Zabaletarena eta Mariezkurrenarena, eta aurreko koarduetan Olaizola eta Elezkanok nor baino nor ibiliko dira. Olaizolak motibazio berezia du, bere agurraren atean dagoelako, baina txapelak oso garestiak dira eta profesionaletan, inork ez du ezer oparitzen.

Altsasuko talde nagusiek asteburuan ekingo diote ligari

FUTBOLA Maila txikikoak izan ezik, Sakanako futbol talde guztiak lanean daude

Kategoria txikiak kontuan hartu gabe –aurki hasiko dira, hala ere, Nafar Kirol Jolasen Futbol Txapelketak– martxan daude Sakanako futbol talde guztiak. 1. Maila Autonomikoa izan zen denboraldia hasten lehena, 3. maila, preferente maila eta gazteen mailako kategoriak hurrenak, eta asteburu honetan gizonen erregional maila eta emakumezkoen 1. Maila Autonomikoa hasiko dira.

Areto futboleko txapelketak beranduago hasiko dira. Aralar Mendik eta Xotak irailaren azken asteburuan ekingo diote ligari.

1. Maila Autonomikoa Lagun Arteak 4. jardunaldia du jokoan. Aurreko larunbatean Lagunak taldearekin Barañainen bana berdindu eta gero, sailkapenean bigarrena da talde lakuntzarra (5 puntu), eta igandean sailkapenean azkena den River Ega taldea hartuko du, 17:00etan, Zelai Berrin, Itxura ona ematen ari da Lagun Arteak, behetik gora egiten ari da, eta pozik daude klub txurian.

Etxarri Bidezarraren kontra

Preferente mailan, Etxarri Arantzatek bigarren jardunaldia jokatu du. Aurreko asteburuko Berbinzanako partida atzean utzi nahi dute etxarriarrek, 5 eta 1 galdu baitzuten. Urte bateko geldialdia eta gero, bueltan dira etxarriarrek eta igandean bere zaleen aurrean jokatu dute, San Donato zelaian, 17:00etan, Bidezarra taldearen kontra.

Altsasuarrak lanera

Asteburuan denboraldia mustuko duten taldeak Altsasu Kirol Elkarteko bi talde nagusiak izango dira. Gizonezkoetan, erregional mailako 3. multzoan jokatu du talde altsasuarrak, ondoko taldeekin: Berrioizar, Gazte Berriak, Iruña, Aurrera, Beti Kozkor, Doneztebe, Arrotxapea, Asdepor, San Fermin ikastola, Baztan B, Amaya B eta Aranguren. 2021/2022 ligako lehen jardunaldia etxean jokatu du, Dantzalekun, eta larunbatean, 17:00etan, San Fermin ikastola talde hartuko du.

Emakumezkoak bueltan

Emakumezkoetan, 1. Maila Autonomikoko 2. multzoan hasteko prest dago Altsasu. Urte bateko geldialdiaren ondoren, atzera ere taldea martxan jartzea lortu dute Altsasu Kirol Elkartekoek, eta hori poztekoa da. Ondokoak izango dira Altsasuren arerioak: Kirol Sport, Mutilbera, Amigo, Mulier, Universidad de Navarra, Casatejon, Berrioizar eta Obereña. 1. jardunaldia etxean jokatu du Altsasuk, igandean, 15:30ean, Tuterako Lourdes taldearen kontra.

EMAKUMEZKOEN 1. MAILA AUTONOMIKOAN ALTSASUK LOURDES HARTUKO DU ETZI

FUTBOLA Sakanako Futbol Topaketak izanen dira aurten

Aurreko urteko etenaren ondoren, aurten Mank-ek Sakanako Futbol 8 Topaketak antolatuko ditu, bi mailatan: kimuen mailan (2010 eta 2011 urteetan jaiotako neska-mutilak), eta benjaminen mailan (2012 eta 2013 urteetan jaiotakoak). Topaketetan izena emateko epea zabalik dago urriaren 8ra arte (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.eus).



Sakanako Futbol Topaketak. ARTXIBOA

"Korrikalariei animatzea, hori da eskatzen duguna"

JUANJO GOIKOETXEA BERASATEGI ARALAR MENDI TALDEA

MENDI LASTERKETAK Igandean 200 korrikalarik hartuko dute parte Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalean. Sakandar dezente daudelako oso pozik dago antolakuntza

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL
Urte bateko etenaren ondoren bueltan da Aralar Mendi elkarrekin antolatutako Uharte Arakil-Beriain Kilometro Bertikala proba ezaguna. Igandean, 10:00etan abiatuko da 5 kilometrotan 1.023 metroko desnibela duen proba gogorra.

Zer moduz zabilzate Aralar Mendi taldekoak? Igandea heltzeko gogotsu?

Egia esan, bai. Joan den urtean ezin izan genuen proba antolatu, baina aurrean animatu gara. Erabakia maiztean hartu genuen. Azken unera arte ez genuenez dirurik aurreratu behar, saiakera egitea erabaki genuen, eta lortu dugu. Ez da ohiko Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala izango; esaterako, ezingo dugu bukaerako auzatea eta dutxa zerbitzurik eskaini, baina behintzat lasterketa antolatu ahal izatea da garrantzitsua.

Mendi korrikalariek asko eskertu dute zuen ahalegina. Uztailaren 1ean zabaldu zenuten izena ematea, eta pandemiagatik 200 pertsonarendako mugatu behar izan zenuen aforoa azkar agortu zen.

Ohiko mendi lasterketekin alderatuta, lasterketa bertikalean pixka bat gehiago kosta egiten da izena emateko zerrendak betetzea, eta gurea bi astetan bete zen. Jendea gogotsu dago, eta aurrean ez direnez lasterketa asko egon, dauden probetarako jendea animatzen ari da.

Korrikalari ezagunak eta korrikalari herrikoiak, denetatik egongo da etzi zuenean, ez?

Bai. Proba irabazteko faboritoen artean, Mikel Beunza eta Xabier Macias nabarmenduko nituzke. Agian oso ezaguna ez den beste korrikalariren batek sorpresa eman dezake, baina nik uste hor erabakiko dela proba. Bestalde, sakandar asko eman dute izena Kilometro Bertikalean, eta hori oso pozgarria da guretzat. Ondo dago izen ezagunak aritzea, bai-



Juanjo Goikoetxea, ezkerretik hasita hirugarrena, Iker Karrerarekin Beriainen. UTZITAKOA

"SAKANDARREN BATEK GOIKO POSTUETAN MUTURRA SARTUKO BALU, SEKULAKO POZA HARTUKO NUKE"

na hemengo jendea etortzea pila bat eskertzen dugu. Oso pozik gaude.

Emakumezkoen artean nor nabarmenduko zenuke?

Aurrean emakume dezentek eman dute izena, eta horregatik ere oso pozik gaude. Nik uste Igone Campos, Ainhoa Lendinez... hor egongo dela lehia.

Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala proba motza baina gogorra da, oso esplosiboa. 5 kilometrotan 1.023 metroko desnibela gaintu behar da, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen.

Ez, erronka nahiko zaila da. Jendea oso entrenatuta etortzen da. Gure probak duen ezaugarri bat da lehendabiziko kilometro eta erdia nahiko laua dela; asko ematen badiozu, gero aldapa gogorrean garesti ordainduko duzu. Beraz, ongi erregulatzen jakin behar da, ezinbestekoa da, bes-

tela lasterketa oso luze egiten da eta gaizki pasatzen da.

Proban parte hartuko duzu ala antolakuntzan ariko zara buru belarri?

Antolakuntzan ariko naiz. Ez dakit beste inoiz parte hartu ahalko ote dudana lasterketa honetan. Pena ematen dit, baina ezin da leku guztietan egon.

Antolakuntzan jende asko ariko zarete lanean.

Urte normal batean 50-60 pertsona egoten gara lanean. Aurrean ez dago auzaterik, baina hala ere 30-40 boluntario egongo gara lanean. Izan ere, jende asko behar da bidegurutzeetan, kontroletan, muntaketa lanetan...

Banaka, taldeka... nola aterako dira korrikalariek?

Pandemia dela eta, erabaki genuen binaka aterako direla, 30 segundora. 200 korrikalari direnez, banaka egingo bagenu dezente luzatuko litzateke proba. Beraz, binaka aterako dira, azken hamarrak izan ezik; hauek banaka aterako dira, 30 segundora. Izan ere, azkenak ateratzen direnak teorikoki proba hobeto egin behar dutenak izaten dira, faboritoak.

Onenak zenbat denboraren bueltan egongo dira?

Ea zer gertatzen den, baina nik uste onenak 41-42 minuturen bueltan ibiliko direla. Errekorra gaintzen badute, 300 euroko beste sari bat jasoko dute. Gizonen errekorra Aitor Osarena da, 2015ekoa (39:54), eta emakumezkoena Ainhoa Sanzek lortu zuen 2019an (47:54).

41 minutu. Erraz esaten da, ezta? Bai, errazegi (kar, kar).

Zein eguraldi iragarri dute igandearako?

Korrika egiteko oso tenperatura ona iragartzen dute, 22 gradu, eta ez dute haize askorik aurreikusten. Beraz, korrika egiteko ez litzateke aitzakiarik egongo. Aste honetan euria eginez gero, agian lokatz pixka bat egon daiteke, baina ez dut uste arazorik egongo denik korrika ongi eta gustura egiteko.

Urtetik urtera jende gehiago gerturatzeko da proba jarraitzea eta korrikalariei animatzea.

Goian, Beriainen, giro oso polita sortzen da, korrikalariek ere eskertzen dutena. Ikusleen animoekin azken aldapa gogor horretan gehiago motibatzen dira korrikalariek. Behin proba bukatuta, behera jaitsiko dira korrikalariek, beste bidetik, Uharteko mendatetik, gainontzeko partaideak ez kaltetzeko. Eta sari ematea 13:30ean izanen da, plazan. Gure proba, aldi berean, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa denez, gure sariez gain Nafarroako Txapelketako sariak banatuko dira.

Polita litzateke korrikalari sakandarren batek goiko postuetan muturra sartzea.

Hala balitz sekulako poza hartuko nuke. Etxekoei sari bat emateak beste zapora bat dauka, zapora askoz hobea.

Sakanako Trail Estazioa mustu da aurrean, eta bertan jasotako ibilbideen artean Beriain Km Bertikala dago, zuen proban oinarritutakoa. Horrek bultzada gehiago emango dio ibilbide honi?

Sakanako Trail Estazioa mustu berria dago, eta nik uste denborarekin mendizale edo korrikalari gehiago animatuko direla gurera hurbiltzera. Ekimen polita da, ea nolako erantzuna duen. **Igandean Uharte Arakil Beriain Km Bertikala jarraitzea hurbilduko direnendako mezurik duzue?**

Kasu egin diezaiotela antolakuntzari, ingurunea errespetatu dezatela eta, batez ere, korrikalariei pila bat anima diezaiotela, errespetuz.

10 urteren ondoren, emakumeak jarraitzeko prest

ATLETISMOA Irailaren 24an hasiko da Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola

Beste urte bat gehiago, eta data borobila beteko du Sakanako Mankomunitateak, hainbat entitatekin laguntzarekin -Nafarroako Gobernua, Altsasuko Udaleko Kirol Zerbitzua eta Emakumearen Bilgunea, Iñigo Aritz ikastola eta Dantzaleku Sakana Atletismo Taldea- antolatutako Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolak. Hain zuzen ere 10 urte. Eskari bati erantzuna emanez sortu zen eskola, emakume batzuk korrika ikasteko teknikak ikasi nahi zituztelako, eta, aldi berean, emakumeak elkartzeko beharra ikusten zutelako, korrika egitera edo lasterketetara batera joateko.

Ordutik, Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolak ez du huts egin. Mank-eko Kirol Zerbitzuak eskolan egiten den lana "oso positiboki" baloratzen du. Eskola hasi bezain pronto, bertara joaten ziren hainbat emakume taldetxo osatu eta hainbat korrika lasterketetara elkarrekin joaten hasi ziren. Eta urtero aurpegi berriak gehitu dira eskolara. Horrela, ostiral arratsaldeetan Dantzalekuan emakumeak korrika ikustea ohikoa bilakatu da.

Monitore berria, Maalen Beraza

Aurrean monitore berria izango du Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolak, Maalen Beraza Etxarri. Irintarrak kirol munduan esperientzia handia du, eta bere esanetara ariko dira eskolan izena ematen duten 18 urtetik gorako emakumeek, Altsasuko Dantzalekuko Atletismo Pistan. Ikasturtea irailaren 24an hasiko da, eta maiatzaren 20an despidituko da. Ostiraleko izanen da eskola, 17:00etatik 18:00etara.

Izena ematea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus), irailaren 21era arte. Prezioa 50 eurokoa da.



Asier Pazos, ezkerrean, AMPO Ordizia Rugby taldeko estrategia jokaldi bat gidatzen. Ohorezko Mailako taldea larunbatean goizez eta arratsaldean aritu zen Lakuntzan entrenatzen.

Lehen mailako errugbia, gertutik

ERRUGBIA AMPO Ordizia Rugby taldeak 'stage'-a egin zuen Lakuntzako Zelai Berrin, Elkarteko prestatzaile fisikoa eta lehen taldeko aurrelarien entrenatzaile Asier Pazos Arbizu lakuntzarrak gidatu zuen entrenamendua, Iñigo Marotiasekin batera

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA Zelai Berrira heldu eta Lagun Arteako ohiko futbol entrenamendu saioa ikusi beharrean, errugbi taktika, estrategia, eraso eta jaurtiketa saioa hartu zuen Lakuntzako berdeguneak. Izan ere, AMPO Ordizia Rugby Elkarteko talde nagusiak, Ohorezko Mailako taldeak, *stage* edo egonaldia antolatu zuen bertan, hastear dagoen Ohorezko Maila behar bezala prestatzeko.

Ezberdina eta, batez ere, ikusgarria izan zen AMPO Ordizia Rugby taldearen entrenamendua. Errugbia kontaktuzko kirola da, oso fisikoa, eta nahiz eta entrenamenduan babesgarriak erabili, jokalarien arteko talkak agerikoak izan ziren. Eta, guztia gidatzen, AMPO Ordizia Rugby talde nagusiko entrenatzaile Iñigo Marotias eta Ordizia Rugby Elkarteko talde guztien presta-

tzaile fisikoa eta talde nagusiko aurrelarien entrenatzaile Asier Pazos Arbizu lakuntzarra izan ziren.

Pazos eta Marotias entrenatzen ikustea bitxia izan zen. Kirol honen atzean entrenamendu ordu asko daudela eta teknika izugarri lantzen dela erakutsi zuten. Erasoak, jokaldiak, alboko sakeak... nola planteatzen zituzten, eta ondoren, jokalariekin jokaturakoaren analisia nola egiten zuten ikustea harritzekoa izan zen. "Uste duzue jokaldian ongi sartu zaretela? Azkarregi, beranduegi?", edo "ez zait gustatu egoera honen aurrean taldea nola ibili den. Horrela bagabiltza, gainetik pasako zaizkigu"; edo "ongi erantzun dugu" eta halakoak. Erabilitako hitzak ere, bereziak ziren: zalditeria, lehen lerroa, bigarren lerroa, hirugarren lerroa, entsegua, alboko sakea, plakatzea, uztartzea

(frantsesez *melée* eta ingelesez *scrum*)... eta jokalarien postuak: lehen, bigarren edo hirugarren lerrokoak, atzelariak, gibeletakoak, harroinak, hegalekoak, hiru laurdenetakoak, joko zabaltzaileak, orpokatzailak, uztartze erdiak... Zelai Berrira hurbildu zirenak errugbiaz zer edo zer ikasiko zuten.

Eta hori guztia, euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez. Izan ere, AMPO Ordizia Rugby taldeak Espainiako maila gorenean jokatzen du, Ohorezko Mailan. Talde profesionala da, eta jatorri ezberdinetako jokalariek biltzen

AMPO ORDIZIA LEHEN MAILAKO TALDEAREN ENTRENAMENDUA IKUSTEA OSO BITXIA IZAN ZEN



Hegaleko sakeak ere landu zituzten.



Jokalariak, baloia harrapatzera.

ditu. Gehienak euskaldunak dira, baina afrikarrak, hegoamerikarrak, Zelanda Berriko jokalaria, madrildarrak... jatorri askotako jokalaria dira.

Iñigo Marotiasak azaldu bezala, 2021/2022 Ohorezko Mailako denboraldia hasteko bizpahiru aste besterik ez dira falta. Liga inoiz baino estuagoa izango omen da, taldeak izugarri indartu direlako, fitxaketa ugarirekin. Baita AMPO Ordizia ere. Talde gipuzkoarrak Andell Loubser hegoafrikarra, Elliot Ryan irlandarra, Max Katijeko namibiarra, Rodrigo Julian Oubiña argentinarra fitxatu ditu.

AMPO Ordiziak indartsu hasiko du liga; lehenengo jardunaldia Barça Rugbiren kontra jokatuko du, urriaren lehen asteburuan, Bartzelonan. Hurrengo partida etxean jokatuko du, Valentziako Les Abellesen kontra, zaleen babesarekin. Hori eta gehiago beharko du taldeak, liga zoragarri baten atarian gaude-lako. Errugbia bueltan da.

Asier Pazosen ibilbidea

Asier Pazos Arbizu AMPO Ordizia Rugby talde nagusiko jokalaria izan zen 2017/2018 eta 2018/2019 denboraldietan. Flankerra zen, 6-7 zenbakiarekin. Aurrelari funtzioa egiten zuen, eta aurrean, erdian eta hegalean jokatzen zuen, zelai guztian barna. Lakuntzarrak Leongo Unibertsitatean Aktibitate fisikoak

eta kirol jarduerak (INEF) ikasketak egin zituen, eta orduan hasi zen errugbian, Leongo Unibertsitateko taldean. "5 urte eman nituen Leongo Unibertsitateko taldean, eta 1. Nazional Mailan jokatzen genuen. Ikasketak bukatzerakoan, goierrendimenduko Masterra egin nuen Leonen, eta praktikak Ordizia Rugby Elkartean. Horrela, 2017/2018 denboraldian AMPO Ordizia Rugby talde nagusian hasi nintzen jokatzen, Ohorezko Mailan" azaldu zion Pazosek GUAIXERI. Bi denboraldi egin eta gero, 2019tik Ordizia Rugby Elkarteko talde guztien prestatzaile fisikoa da, eta egun, talde nagusiko aurrelarien entrenatzailea.

3 jokalar sakandar Ordizian

Ordizia Rugby Elkartean hiru jokalar sakandar daude: Owen Berdote urdiaindarra eta Iker Alegria eta Ander Gasco lakuntzarrak. 18 urtez azpiko taldean jokatzen dute, eta gustura daude.

Errugbiaz

AMPO Ordizia Rugby taldeko jokalaria zenean, errugbira nola jokatzen zen galdetu genion Asier Pazosi. "Helburua da baloia aurreraren areara eramatea, baina ez da hain erraza: aurreraka korrika egiten da, baina paseak atzeraka egin behar dira. Taldekideekin baloia bata besteari pasatzen ibili behar dugu, eta arerioa saiaturiko da zu gelditzen. Nola? Lurrera botatzen, plakatze baten bitartez. Errugbian jokalarien segurtasuna bermatzen da, eta horretarako arau pila bat bete behar dira: esaterako, plakatzeak era jakin batean egin behar dira, eta baloia era batera pasa behar da. Bestela, falta izanen da. Kontrako areara iristean, baloiarekin lurra zapatu eta entsegu bat irabazten duzu, 5 puntu balio duena. Eta ondoren, hankarekin jaurtiketa egin dezakezu. Horrela, baloia H atean sartzen baduzu, beste 2 puntu lortuko dituzu. Entsegu egin duzun toki beretik egin behar da jaurtiketa" azaldu zuen Pazosek, errugbian errespetu ezinbestekoa dela azpimarratuz. Gutxika, ikasiko dugu.

"ERRUGBIA PROBATU ETA GERO, GEHIENEK SEGITZEN DUTE; GUZTIZ HARRAPATZEN ZAITU" ASIER PAZOS

"HIRU SAKANDAR DITUGU ORAIN; ONGI JOKATZEN DUTE ETA GUSTURA DABILTZA" ASIER PAZOS



"Interesatuendako, ateak zabalik daude Ordizian"

ASIER PAZOS ARBIZU ORDIZIA RUGBY ELKARTEKO PRESTATZAILEA

Entrenamendua nola gidatu duzun ikusita, prestatzaile fisikoa izateaz gain entrenatzaile ere bazarela argi geratu da.

Ordizia Rugby Elkarteko osoko prestatzaile fisikoa izaten jarraitzen dut, baina aurreko urtean talde nagusiko aurrelariarekin lana egiten hasi nintzen, alde taktikoa lantzen, eta aurtan, Iñigo Marotias entrenatzaileari laguntzen diot. Azkeneko 5 urtetan ikastaroak egiten aritu naiz, bereziki taktika eta estrategiak lantzen.

Lakuntzan 'stage' delakoa egin duzue. Zer da?

Normalean Lekarotzen egiten genuen 'stage'-a edo taldeko egonaldia. 3 egun pasatzen genituen, asteburu osoan elkarrekin ahalik eta ordu gehien egoteko, bai entrenatzeko eta baita taldekideak elkarren artean ezagutzeko. Denboraldi hasieran fitxaketa berri asko daude, eta horrela talde giroa lantzen da, taldea ondu eta entrenamendu maila pixka bat igotzen da. Baina pandemiagatik ezinezkoa zen, eta behintzat Lakuntzako egun pasa antolatu dugu. Goizean entrenamendua egin dugu, bazkaldu eta gero Lakuntzako Kultur Etxean analisisa egin dugu, hau da, bideoak ikusiz gure taldeko estrategiak zehaztu, eta arratsaldeko entrenamenduaren ondoren Lakuntzako igerilekuetan bainua hartu eta 'stage'-a despeditu dugu.

AMPO Ordiziako jokalar gehienak euskaldunak dira, baina entrenamenduan gaztekeraz eta ingelesez ere aritu zarete.

Jende gehiena Euskal Herrikoa da, baina badago Zelanda Berriko jendea, Samoakoa, Argentinakoa, Madrilloa, Hego Afrikakoa... Beraz, entrenamenduak euskaraz, gaztekeraz eta ingelesez dira.

Aurki hasiko duzue liga, Barçaren kontra. Nola zaudete?

Goiz da esateko, baina oso ongi ikusten dut taldea, gubika rolak eta erritmoo berriro hartzen. Taldeak itxura ona du, eta liga hasteko gogotsu gaude.

Sakandarrak Ordizia taldean aritzera animatuko zenituzke?

Jakina, ateak zabal-zabalik daude, edozein unetan, eta sakandarrak animatzen ditut. Zailena probatzea da, errugbia probatzeko pauso hori ematea, baina pauso hori ematen badute, ziurrenik asko gustatuko zaiela eta jarraituko dutela. Izan ere, errugbiak guztiz harrapatzen zaitu. Egundak, Lakuntzako bi mutil daude Ordizian, Iker Alegria eta Ander Gasco, eta Urdiaingo Owen Berdote. Oso gustura daude, 18 urtez azpiko mailako taldean, eta ongi jokatzen dute.

Zelai Berrin gustura ibili zarete, zu bereziki, etxean egonda...

Jakina (kar, kar). Gure estadioak, Altamirak, belar artifiziala du, eta Zelai Berriko belarrezko zelai hau zoragarria da, aparta. Egia esan, oso gustura entrenatu dugu, eta egun ederra pasa dugu. Lagun Artea futbol taldeari eskerrak eman nahi dizkiogu, zelaia uzteagatik, eta baita Lakuntzako Udalari ere, Kultur Etxea eta beharrezko instalazioak gure esku jartzeagatik. Oso gustura egon gara.

Fibromialgia eta bestelako arintzeko ikastaroak

KIROLDEGIA Urrian hasiko dira ikastaroak, eta izena ematea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan

Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, Sentiberatasun Kimiko Anizkoitza eta antzeko gaixotasunak dituzten sakandarrandako aurtan ere euren osasuna hobetzeko jardura fisiko espezifiko antolatu du AFINA elkarteak (Asociación Fibromialgia de Navarra), Sakanako Mankomunitatearen, Altsasuko, Etxarri Aranazko eta Irurtzongo Udalen, Sakanako Osasun Etxeen eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Gaixotasun hauek oso gogorak dira, eta gaixoei minberatua eta nekatuta egotearen etengabeko sentazioa izaten dute. Horregatik, halako ikastaroetara joateko gomendioa egiten diete gaixoei, euren egunerokotasunean oso onuragarria delako eta bizitza kalitate hobea lortzen dutelako.

Julene Mazkarian

Aurreko urteetan bezala, Julene Mazkarian Aramendi kirosajista altsasuarrak gidatuko ditu klaseak. Hiru tokitan eskainiko da ikastaroa, urritik hasita ekainera bitartean: Altsasuko Zelandi Kiroldegian (astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 17:30era), Etxarri Aranazko Kultur Etxean (astelehenetan, 10:00etatik 11:30 era eta asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era) eta Irurtzongo Kultur Etxean (asteartetan eta ostegunetan, 10:40tik 12:10era). Izena emateko epea zabalik dago Mank-eko Kirol Zerbitzuan (kirolak@sakanamank.eus, 948 464 866). AFINAko bazkideek hilero 11 euro eta gaitz nontzekoek hilero 17 euro ordaindu beharko dituzte.

Musikoterapia eta kirol egokitua

Adimen urritasunen batedo behar bereziren bat duten sakandarrandako kirol egokitua, musikoterapia eta psikomotrizitate ikastaroa antolatu ditu Mank-ek. Izena ematea zabalik dago.



Sakanako Mendizaleak taldeko kideak igandeko Pirinioetako zeharkaldian. MIGUEL ULAIAR

Sakanako Mendizaleak taldearen itzulera gozoa

MENDIA Igandean Pirinioetan antolatutako zeharkaldian 56 mendizalek hartu zuten parte, eta hilabeteko ohiko irteerei eutsiko dietela azaldu du Pello Ruiz Sakanako Mendizaleak taldeko presidenteak

Sakanako Mendizaleak taldea berriro martxan dago. Orain arte mendigoizale sakandarrak bakoitza bere kabuz edo bere klubarekin, talde txikitik ateratzen ziren mendira, baina 2020ko martxotik bertan behera geratu ziren Sakanako mendi klubaren topagunea den Sakanako Mendizaleak taldeak hilero egiten zituen irteerak. Baina bueltan dira, eta aurreko larunbatean 56 mendizalek hartu zuten parte Sakanako Mendizaleak Pirinioetan antolatutako zeharkaldian.

"Egoera hobetzen ari dela ikusita, martxan jartzea erabaki dugu, eta larunbatean Pirinioetan zeharkaldia prestatu genuen.

Sekulako arrakasta izan zuen. Autobusa bete zen, 56 mendizalek eman zutelako izena. Otsagitik gora, Larrau portua igo (1.573 m) eta handik aurrera Belagura iritsi ziren, eta askok Lakartxela mendia igo (1979 m) zuten. Zeharkaldi hau joan zen urtean egitekoa zen, baina pandemia dela eta, ezinezkoa izan zen. Baina aurten, bai, animatu gara" azaldu du Sakanako Mendizaleak taldeko Pello Ruiz Bordegarai lakuntzarrak. Bera ezin izan zen egon, ebakuntza batetik osatzen ari delako, baina mendizale sakandarrak "oso gustura" aritu zirela aipatu du. "100 argazkitik gora bidali dizkidate, eta haiek

ikusita, badirudi ni ere han egon nintzela" dio irribarrez.

Mendizaleen egutegia, bueltan Sakanako Mendizaleak euren hilabeteko irteerak egiteko gogotsu daude. "Urriar Arabako Errioxara joango gara, Laguardia eta Lagran arteko txangoa egingo dugu, eta azaroan Errioxako bidea hartuko dugu, Castroviejo-Pedroso ibilbidea egitera. Ondoren upategi batean bazkalduko dugu. Eta, abenduan, Orio eta Zumaia arteko kostako mendi ibilbide bat egiteko asmoa dugu" gaineratu du Ruizek. Jakina, bertan parte hartzera animatu ditu mendizaleak.

Basaluzeko dorreko maketa, ikusgai

Altsasuko Mendigoizaleak taldea ez dago geldirik. Ohiko mendi irteeraz gain, beste hainbat ekimenetan murgilduta ibili da, tartean, klubak antolatzen duen Hiru Mendizerrak martxa Sakanako Trail Estazioaren barruan jasotzeko lanetan. Jakina denez, uztailan aurkeztu zuten Sakana Trail Estazioa. Mendi korrikalariei begira Sakanan barna markatutako bost ibilbide dira, eta tartean dago Hiru Mendi Zerrak Estazioa (46,5 km, 2.138 m desnibela), Altsasuko Foru plazatik abiatzen dena. Ibilbide guztiak, baita Hiru Mendi Zerrak ere, markatuta daude, informazio panelak daude eta telefono mugikorrendako "Station de Trail" izeneko APPa deskargatuta, ibilbidearen 'track'-a lortu daiteke.

Horretaz gain, eta Jesus Ginea taldekideak dioenez, "saltsero hutsak" direnez, beste lan bat egin dute klubeko hainbat kidek:

Basaluzeko dorreko maketa ederra egin dute. Basaluzeko dorrea telegrafo optikoko dorrea zen. 1844tik 1846ra bitartean eraiki zuten, eta linea 1846an mustu eta 1855ean utzi zitzaion erabiltzeko. Gaztelako linea osatzen zuen, Madril eta Irun lotzen zituen, egun desagertuta dauden Ziordikoarekin eta Altsasuko Engarakoarekin batera. Berriki zaharberritze lanak egin ditu Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoaren Zerbiztuak, 250.527,53 euroko inbertsioa.



Trail Estazioa aurkeztuko dute.

Erakusketa, Gure Etxean

Bada, Basaluzeko dorrearen maketa Gure Etxean ikusgai jarriko du Altsasuko Mendigoizaleak klubak, igandetik, irailaren 19tik, irailaren 23ra bitartean. Mustutze ekitaldia bihar, larunbata, 12:00etan izanen da. Maketarekin batera, Hiru Mendizerrak Traila eta Altsasun zehar egin daitezkeen lau ibilbide edo xenda –Bargagaingo Gurutzea edo Tontorraundi, Balankaleku, Dorre Txiki eta Dantzaleku-San Pedro– aurkeztuko dituzte.

Azaroan, 2022ko egutegia

Sakanako Mendizaleak taldea osatzen duten Sakanako mendi klub guztietako ordezkariak azaroan bilduko dira, oraindik zehaztu gabeko datan, 2022. urteko

egutegia zehaztu, aurrekontuak aurkeztu eta taldearen nondik norakoak aztertzeko. "Jendea animatu da, gogotsu dago, eta hori da garrantzitsua" nabarmendu du presidenteak.

TXIRRINDULARITZA Tadeok eta Erdoziak, beste garaipen bana

Denboraldi bukaera aparta izaten ari da hau junior mailako txirrindulari sakandarrendako. Larunbatean Tafallako Urvaca Trofeoa irabazi zuen Aimar Tadeok esprintean, eta igandean, Lizarran, bere taldekide Jon Erdoziak garaipen polita lortu zuen esprintean. Euren taldea, Sakana Group, izan zen bi lasterketetan onena.



Tadeo eta Erdozia, Tafallan. SAKANA GROUP

Lasa eta Mintegi etxean ongi

TXIRRINDULARITZA Igandean jokaturako afizionatuen mailako 92. Altsasu Txirrindularitza Proba beti bezain ikusgarria izan zen. Altamira seitan gainditu behar izan izan zuten txirrindulariek. Raul Rota (Lizarte) gailendu zen bukaerako esprintean, Ailetz Lasa 5. sartu zen eta Iker Mintegi 11. Bestalde, Andoni Ocaña 49. iritsi zen, eta Iker Cerviño 52.





Skabidean taldea. UTZITAKOA

Izaera propioa duen taldea

Skabidean taldeak kontzertua eskainiko du Etxarri Aranazko plazan, ostegunean, irailaren 23an, 20:00etan. Talde iruindarrak ska, reggae eta, azken lanean, funky doinuak eskaintzen ditu. Datorren abenduan hamar urteko ibilbidea ospatuko du

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A. Iruñeko Iturrama institutua, 2011. urtea. Bertako zazpi ikaslek musika talde bat sortu zuten: Skabidean. "Gauza bat eta beste" talde hori banandu, eta beste institutuko bi kide sartu ziren taldean, gaur egungo formazioa sortuz. Guztira, hamaika kide dira orain. "Nafarroan kultura ikaragarria dago, eta txikiak

garenean musika entzuten eta ikasten hasten gara. Askoren ametsa talde bat sortzea da". Nikolas Leonardo Skabidean taldeko tronpeta jolea da. Skabidean sortu zenetik hamar urte pasa dira eta "ez genuen inolaz ere espero honaino iristea". Bost disko kaleratu dituzte, azkena, 2020. urtean, pandemiaren urtean: *Izaera*. Egoera zela eta,

ezin izan zuten dagokion bezala aurkeztu, baina ostegunean, irailaren 23an, 20:00etan, Etxarri Aranazko plazan, disko horretako abestiak "baitaurrekoak ere" eskainiko dituzte kontzertuan.

El Trono de Judas, La Polla Records, Cicatriz, Eskorbuto, Tijuana in Blue eta abar taldeak entzuten hezi dira Skabidean

taldeko kideak. "Hemengo taldeek eragin handia izan dute, eta ikaragarria da jakitea talde bat sortzea posiblea dela. Proiektu gisa finkatuz, eta lan eginez, posiblea da". Iruñeko eszena Nafarroa osora hedatzen ari dela esan du Leonardok.

Ska, reggae...

"Taldearen eboluzioa izan zen". Rockaren influentziatik urrundu, eta "musika berria ezagutzen" hasi ziren. Horrela ska eta reggae estiloan murgildu ziren. "Hari horretatik tira egitea erabaki genuen". Azken aldian funky gehiago egiten ari direla esan du musikariak. "Guere gauza berriak entzuten ari garelako".

Taldeakideen arteko harreman onak irautearen sekretua izan dela esan du Leonardok. "Hasi ginenetik garrantzitsuena izan da gure arteko harremana. Disfrutatzeko egiten dugun zerbait da, ez sufritzeko zerbait". Harremana asko zaindu dute, eta lan arloko erlazioa eta pertsonala uztartzen dute. "Lanak ateratzen direnez eta eskuartean proiektuak ditugunez, erlazioek funtzionatzen dute". "Oso" lagunak direla aitortu du, "nola utzi behar dugu taldea gure artean oso ongi pasatzen badugu?". Momentu latzak ere bizi izan dituztela eta pasako dituztela esan du, "baina hori da zailena, momentu horiek pasatu eta berriz aurrera egitea".

Abenduan hamar urte beteko dira Skabideanek, Iturrama institutuan sortutako talde horrek, bere lehenengo emanaldia egin zuenetik. "Hasi ginenean taldekide batzuek 13 edo 14 urte genituen. Nik 14 urte nituen. Gurasoek asko lagundu digute". Egiten dutena gurasoen gustukoa dela azaldu du Leonardok, "eta

ongi pasatzen genuelako ere". Garai horretan sortutako talde asko desegin direla esan du, "lanagatik eta beste arrazoi batzuegatik"; baina Skabideanek aurrera jarraitzen du, "gozatzen, gainera".

Pandemia

2020. urtean bere azken diskoa kaleratu zuen Skabidean taldeak. Ezin izan dute aurkeztu, "guztioak dakigun arrazoiengatik". Pandemia dela eta, "bi urte daramatzagu kontzertuak egoera berezian egiten. Oraindik ez gara ohitu". Haien musika dantzagarria da, "eta jendeak horrela ikusten du". Egoerara moldatu dira, eta aulkian egon arren jendea mugitzen dela esan du Leonardok. Antolakuntzako kideei baimena eskatuta, badi-ra dantzatzeko aulkitik altxatzen direnak ere.

Etxarriko osteguneko kontzertuan batez ere *Izaera* diskoko abestiak joko dituzte, baita aurreko diskoetako abestiak ere. Guztira, bost disko kaleratu ditu Skabidean-ek: *Maketa* (2015), *Skabidean* (2017), *Bideak darrai* (2018), *Maravillas social club* (2018) eta, azkena, *Izaera*.

TALDEAREN "EBOLUZIOAREN" ONDORIOZ, SKA ETA REGGAE MUSIKA EGITEN HASI ZIREN

ABENDUAN HAMAR URTE BETEKO DIRA SKABIDEANEK LEHEN EMANALDIA EMAN ZUENETIK

Album ilustratuak erakusketa bihurtuta

Etxarri Aranazko liburutegian Etxepare Sariko album ilustratu irabazleen erakusketa dago hilaren 30era arte

ETXARRI ARANATZ

Haurrendako album ilustratu bat egiterakoan, bi aldiz pasatzen da inprimategitik, Castillo Suarez Sakanako Mankomunitateko euskara teknikariak azaldu duenez. Lehendabizikoa aldian plantxa

batzuk daude marrazkiekin, eta bigarrenetan testua doa. Horregatik, argitaratzen diren album ilustratu gehienak itzulpenak direla esan du Suarezek, testua bakarrik aldatu behar denez, gastuak merketzen direlako. Egoera

ri buelta emateko, eta euskarazko liburu gehiago sortzeko asmoz, duela zenbait urte Nafarroako 23 toki entitatek Etxepare Saria jarri zuten martxan. Sari bikoitza da: 5.000 euro eta album ilustratua argitaratzea, Pamielaren eskutik.

Album ilustratu bat inbertsio bat da. Ez direla hain garestiak azaldu du Suarezek. "Nire sentsazioa da gurasoek albumek letra gutxi dutela ikusten dutela eta iruditzen zaie dirua botatzen dutela. Baina albumek denbora luzerako ematen dute: ilustratuak di-

relako, behin eta berriz har daitezkeelako, beti agertuko da marrazkien artean zerbait berria...".

Sariak hamabost urteko ibilbidea du, eta urte hauetan "liburu asko egin dira". Liburu horien azalekin erakusketa sortu dute, eta dagoeneko Etxarri Aranazko liburutegian ikus daiteke. Hilaren 30era arte egon da. Erakusketan album ilustratuen erreferentzia bat ematen dute ere, album ilustratu hori erosi edo oparitu nahi duenarendako aukera izateko. Etxepare sarietako liburu

guztiak, gainera, Sakanako liburutegi eta ikastetxe guztietan daude. Erakusketaren helburua "liburuak plazaratzea" da.

Suarezek ezin du album ilustratu gogokoena aukeratu. Egileaz oroitzen da, baita sari banaketa momentuaz ere. "Maite Gurrutxaga bere anaiarekin joan zen, Leire Salaberria gazte-gaztea zen eta bere aitarekin etorri zen eta ondoren aitak pote batera gonbidatu gintuen, Liebana Goñiren lehenengo lana izan zen ere...". Liburuekin baino, egileekin du oroitzen "polita".

Altsasuko musika eszena berria

Sukarrafest jaialdiaren lehenengo edizioak Altsasuko eta Sakanako sei talde bilduko ditu: Haizkan, Atzapar Rock, Daeshtxarge, Xuar, Deserrite eta Denetara. Iortia zabalgunea izanen da kontzertuen gunea

Erkuden Ruiz barroso ALTSASU

Iritsi da eguna. Gaur Sukarrafest Altsasuko musika jaialdiaren lehenengo saioa izanen da, Iortia zabalgunean, 18:00etatik aurrera. Bertako taldeekin "zerbait egiteko" ideia aspaldikoa dela azaldu dute Haritz Mendikute eta Iñaki Gasko musikariek eta jaialdiko antolakuntzako kideek, baina "hainbat arrazoiengatik" ezin izan dute egin. Gaurko egunera arte. Sai taldek parte hartuko dute: gaur, irailak 17, ostirala, Haizkan, Atzapar Rock eta Daeshtxarge taldeak ariko dira, eta datorren ostiralean, irailaren 24an, Xuar, Deserrite eta Dentera taldeak. Talde bakoitzak ordu bateko emanaldia eskainiko du. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertuak atzeratuko dira.

"Urte gehiegi pasa dira Altsasun eta Sakanan musikaren urrezko aroa pasa zela". Garai horretan Altsasuko Gaztetxera "talde oso famatuak" etortzen zirela astero azaldu dute: Cicatriz, SA, ToyDolls, Eskorbuto eta abar. Sakanan musika berpiztea da jaialdiaren helburua, antolatzaileen esanetan. "Talde berri eta ezezagunei jotzeko aukera emanez, eta talde txikiei aukera gehiago emanez". Gaur egun "ezerezetik" ateratzea eta jotzen hastea "oso zaila" dela esan dute.

Altsasutik Altsasurako egiten den lehenengo musika jaialdia da. Sukarrafest-en parte hartzeko baldintza bakarra Altsasuko taldeak izatea edo herriarekin erlazioan tutakoak izatea da. Hau da, taldekideren bat Altsasukoa izatea.

Lehenengo edizioa

Musika panorama astintzeko asmoz, beraz, martxan jarri ziren. Lehenengo urratsa udalaren baimena lortzea zen, "eta eskerrak eman nahi dizkiogu udalari eta

Javier Ollo alkateari arazorik gabe oniritzia emateagatik". Udalak kontzertuak aurrera egiteko soinu ekipa alokatuko du. Baimena eskuetan zutela, data eta lekua adostu behar zuten. "Udalarekin hitz egitean adostu genuen ideia ona izango zela Iortia zabalgunean dagoeneko dagoen eszenatokia baliatzea". Datari dagokionez, "pandemia dela eta bagenekien festetan egitea ezinezkoa izango zela. Egokiena iraileko azken bi ostiraletan egitea zela adostu genuen".

Aurtengoa lehenengo edizioa izango da, baina urtero egiteko intentzioarekin jaio da: "Geroztik eta jaialdi handiagoa egiteko asmoa dugu". Jaialdiaren helburu nagusia musika eta kultura "berpiztea" denez, Altsasuko "beste jai egun" garrantzitsu bat bihurtzea nahi dute.

"Urduri ez da hitza, baina gogo eta ilusio asko jarri ditugu jaialdi honetan. Beraz, ezinegonen gaude". Jendearen parte hartzea eta hartu-emanen zein den ikusteko gogotsu daude, baita etorkizunerako edizioetarako dirua biltzeko moduak bilatzen ere.

Taldeak

Haizkan taldeak emango dio hasiera Sukarrafest-i. Euker Perez bateria jolea, Haritz Goikoetxea baxu jolea eta Gaizka Lanasko gitarrak jolea eta abeslariak osatzen dute taldea, eta bere lehenengo kontzertua Urdiaingo festa txikietan izan zen, abuztuan. "Hasiera batean Gaizka eta Haritz

elkartu ginen. Gogotsu geunden biak, baina egia esan besterik ez genuen". Gaizkak ez zekien gitarra ondo jotzen, eta ekipoa ere ez zen ona. Lehenengo entsegua "desastre hutsa" izan zela aitortu dute. Ondoren, Euker sartu zen, eta berak zituena "gogo handiekin" aurrera egin zuten.

Haizkan Urdiaingo euskalkiaren hitz bat da: Haizeak hartzera edo dena pikutara bidaltzea esan nahi du. "Batzuek pentsatu dute gure izenen arteko nahasketa bat zela, baina ez da hori". Ez dute oso argi taldearen musika estiloa zein den, "baina rock gogortzat deskribatu genezake". Hasiberriak dira, eta momentuz haien helburua "abestiak jotzea" da. Abestiak sortzen ari dira, "baina erreperitorioan ez dira nahikoak kontzertu oso bat egiteko".

Atzapar Rock taldeak ibilbide luzea egin du dagoeneko, eta formazio berriarekin bigarren emanaldia eskainiko du jaialdian: Sarabe Begiristain abeslaria, Ekhi Erauskin gitarrak jolea, Luken Goikoetxea baxu jolea eta ahotsa eta Aitzol Gantzarain bateriak jolea. Taldea 2016. urtean sortu zuten Anderrek eta Asierrek, dagoeneko taldean ez dauden bi musikaririk. Hainbat musika genero nahasten dituzte, baina gehienbat hard rock, punk rock eta metala jotzen dute. Abesti gehienak taldearenak dira, eta bertsio pare bat ere jotzen dute.

Eszenatokira lehenengo aldiz aterako da Daeshtxarge taldea. Joseba gitarrak jolea da, Mel abeslaria, Hodei baxu jolea eta Iñaki bateriak jolea. Taldearen izena Daeshen kargatik dator, hau da, Isis estatu islamikotik, eta letra politiko "brutalak" dituzte. D-Beat estiloa jotzen dute, "hardcore-punka, soinu zorrotz eta distor-

Musika taldeak



Haizkan

Euker Perez bateria jolea, Haritz Goikoetxea baxu jolea eta koroak, Gaizka Lanasko gitarrak jolea eta ahotsa.



Atzapar Rock

Ekhi Erauskin gitarrak jolea, Aitzol Gantzarain bateriak jolea, Luken Goikoetxea baxu jolea eta Sarabe Begiristain abeslaria.



Daeshtxarge

Joseba gitarrak jolea, Mel abeslaria, Hodei baxu jolea, Iñaki bateriak jolea.

**SUKARRAFEST
JAIALDIA IRAILAREN
17AN ETA 24AN
IZANGO DA, IORTIA
ZABALGUNEAN**



Xuar

Asier Palomino gitarra jolea, Hodei Unamuno baxu jolea, Aritz Mendikute gitarra jolea, Mikel Flores abeslaria, Mikel Etxabarri bateria jolea.



Deserrite

Iñaki Gasco gitarra jolea eta koroak, Gaizka Okaña gitarra jolea eta koroak, Jesus Palop ahotsa, Hodei Alegre bateria jolea, Haritz Goikoetxea baxu jolea eta koroak.



Dentera

Angel gitarra jolea, Jon Calvo baxu jolea, Otxoa gitarra jolea, Emilia ahotsa eta Haitz bateria jolea.

tsionatuarekin". Abestiak taldearenak dira.

Bigarren eguna

Pandemia hasi zenean eman behar zuen Xuar taldeak bere debut kontzertua. Baina urte eta erdi itxoin behar izan zuen, eta uztailean egin zuten bere lehenengo kontzertua, Lakuntzan. Aritz Mendikute eta Asier Palomino gitarra joleak, Hodei Unamuno baxu joleak, Mikel Etxabarri bateria joleak eta Mikel Flores abeslariak osatzen dute taldea eta taldearen izena Shuar tributik dator. "Tzantzak edo txikitutako buruak egiteagatik dira ezagunak".

"Taldekide guztiok duela urte asko ezagutzen genuen elkar, eta beti jo dugu elkarrekin". Hainbat estilotan murgildu dira, eta azkenean hardcore metalarekin geratu dira. "Baina *groove*, *un*, *death*, *melodic*, *progresive* eta *trash metal* influentzekin". Bederatzi abesti sortu dituzte, eta laster EP bat aterako dute lehenengo lau abestiekin. Kontzertuan hiru bertsio ere joko dituzte. "Xuar taldea Altsasun ezagutaraztea eta jende guztiari gure ahalmena erakustea da". Haiekin giro ona ziurtatuta dagoela esan dute, "jendearen adrenalina aterako dugu".

Deserrite taldearen debuta jaialdian izan behar zuen. Baina "egia esan, festetan ezin izan genien jotzeko gogoei heldu, katxarroak hartu genituen, kalera atera, eta kontzertu txiki bat eman genuen". Dena dela, eszenatoki batean lehenengo aldiz Sukarrafest-en ariko da. Jesus Papol abeslaria da, Gaizka Okaña gitarra jolea da, Hodei Alegre bateria jolea, Haritz Goikoetxea baxu jolea eta Iñaki Gasco gitarra jolea da. Okaña, Goikoetxeak eta Gascok koroak ere egiten dituzte.

Taldea "oso gutxika" sortu zela azaldu dute. Hasieran Gaizka, Hodei eta Iñaki biltzen ziren, eta ondoren Palopi ahotsa izateko esan zioten. "Baxu gogor bat" bilatzen ari ziren eta Haritz "oso ongi aritzen" zela esan zie-

ten. "Lehenengo entsegutik taldeak behar zuen baxu jolea zela jakin genuen". Entseguetan musikarien artean "kimika izugarria" sortu zen.

Taldearen izena Manuel de Larramendiren Hiztegi hirukoitzean azaldu zen neologismoa izan zen eta erbestea esan nahi du. "Oso izen aproposa iruditu zitzaigun gaur egun rock and rolla erbesteratuta bezala dagoelako". Hortaz, ongi etorria da deserritera lema erabiltzen



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO MARIN

Begi zuloak

Jada oporrak amaitu dira, beraz errutinara buelta, baina, gure sorpresarako nekatuta itzultzen gara, edo behintzat ez nahi guren deskantsuarekin, eta hori gure begi zuloetan nabarmentzen da. Nekea ez da honen arrazoi bakarra, gehiegizko eguzkiak ere garrantzi handia izan dezake.

Badakigu eguzki-izpiekiko gehiegizko esposizioak erreduz, larruazalaren zahartze goiztiarra eta abar dakartzala, baina aurreikusi ez genuena da begi zuloen iluntasunaren erruduna ere izan daitekeela.

Zergatik? Begi zuloena aurpegiaren gainerakoa baino lau aldiz finagoa den larruazala delako, eguzki-esposizioarekiko sentikorragoa, eta melaninak aktibitate handiagoa duen eremua delako. Beraz, emaitza zimurtuagoa da, eta hiperpigmentaziorako joera handiagoa du.

Horrez gain, uda garaian beste faktore batzuk gehitzen dira. Bartzelonako Centre Médic i d'Estètica elkarteko José Manuel Fernández doktoreak dioenez, "eguzkiaren eragina perpendikularragoa da, denbora gehiago igarotzen da aire zabalean eta eguzkitako betaurrekoen erabilerarekin". Bai, kontrastu handia dirudien arren, azken finean, logikoena litzateke pentsatzea osagarri horrek babesten gaituela, arazoa okertu beharrez, salbuespen bat dago: "egiaztatuta da metalezko armazoia duten betaurrekoak erabiltzeak eguzki-izpien islapena areagotzen duela, eta horrek eremu horren gain esposizioa eragiten duela, eta, ondorioz, pigmentazio loka-

dute. Rock and roll gogorra egiten dute.

Dentera esperientzia handiko taldea da; bi hamarkada bete ditu musikaren munduan. Taldekide bakoitzak eragin desberdinak ditu, baina metal eta punk estiloen oinarritzen dira. Hiru disko grabatu dituzte, eta jaialdian formazio berriarekin ariko dira: Angel eta Otxoa gitarra joleak izango dira, Emilio abeslaria, Jon Calvo baxu jolea eta Haitz danborrak astintzen egongo da.

lizatua larriagotu egiten dela" adierazi du espezialistak.

Trailera behegain ilunagoekin iritsi bagara, albiste txarra da, uda igarota eguzki erakusketa murrizten badugu ere, eremua ez delako berez argituko. Berri ona da oso eraginkorrak izan daitezkeen tratamenduak daudela: bai etxean erabil ditzakegun kosmetikoak, bai kabinatan.

Etxean: Gure edertasun-errutinan, melaninaren sorreraren metabolismoan eragiten duten kosmetiko aktiboekin tratatzea, hura murriztuz eta, beraz, orbana areagotzea prebenituz; edo zuzenean argitzen duten substantziekin ere tratatzea. Hain gune sentikorra denez, espezialista baten gana joatea gomendatzen dut, kasu bakoitzean begien ingururik egokiena zein izan daitekeen erabaki dezan, baina "azido ferulikoa" ez da falta behar.

Kabinan: Substantzia despigmentatzaileak dituzten peeling-ak erabiltzea, mota askotakoak, sakonera desberdinekoak. IPL (argi bizi pulsatua), honen bidez argia eremu hiperpigmentatura finkatzen da, melanina erretzen du eta, ondoren, makrofago izeneko zelulek digeritu (aurpegi osorako balio du, hau orban gabe eta argiarekin utziz).

Epe luzera begira –hau ez da lehen aukera izan behar, interbentzio txiki bat delako eta ez da edozein poltsikoarendako–: Azido Hialuronikoa. Begi zulomarkatuak bi ezaugarrietan nabarmentzen dira, huen sakoneran eta kolorean, eta teknika honek sakonera naturala, diskretuki eta homogeneoki deuseztatzen ditu. Ildakaren sakon gunea betetzeko eta eremua proiektatzeko aukera emateaz gain, tonua bateratu ere egiten du, formulatan antioxidatzaileak txertatzen dituelako, eta eguzkiaren efektuak irauli eta orbanak agertzea saihesten du.

**"ALTSASUTIK
ALTSASURAKO"
SORTUTAKO JAIALDIA
DA, ETA HANDITZEA
ESPERO DUTE**



Bertako artaldea basoan. GORKA BEUNZA

Abeltzaintza, gazta eta hestebeteak, Sakanako ekoizpen ekologikoa

CPAEN/NNPEK Nafarroako elikagai ekologikoak ziurtatzen dituen erakunde publikoak 25 urte bete ditu, eta irailaren 24tik 26ra ospatuko du Noaingo Zentzumenen Parkean. Azoka horretan, besteak beste, Sakanan ekoiztutako elikagaiak egongo dira

Eneida Carreño Mundiñano SAKANA

1 Zer da nekazaritza ekologikoa?

Nekazaritza kudeatzeko eta nekazaritzako elikagaiak ekoizteko sistema orokor bat da, bere baitan hartzen dituen ingurumeneko jardunik hoberenak, biodibertsitate maila altua, natura baliabideen zaintza eta animalien ongizateari buruzko arau zorrotzen aplikazioa.

2 Nola dakigu elikagai bat ekologikoa dela?

Produktu ekologikoen ekoizpen ekologikoaren erreferentziak dituzte etiketan, termino basteak erabiltzen baitira: "ekologikoa", "biologikoa" edo horien laburdurak, "eko" eta "bio" hain zuzen. EUOHOSTOA izenari esker identifikatzen dira. Europako Batasuneko ekoizpen ekologikoaren logotipoa da, eta kontrol erakundeak (kasu honetan, Nafarroarako, CPAEN/NNPEK) adierazten duen logotipoa eta zenbakizko kodea dituzte. Europar Batasuneko Kontrol Agintaritza gisa identifikatzen gaituen zenbakia "ES-ECO-025-NA" da. Urtero, CPAEN/NNPEK-en ikuskaritzak operadore guztiak bisi-



tatzen dituzte, araudi guztia betetzen dela bermatzeko.

3 CPAEN/NNPEK erakundeak 25 urte bete ditu. Nork osatzen dute?

Azken zentsuan, 2021eko maiatzean, 724 operadore zeuden eta 60.471 ha. ziurtatutako azalera osoa, Nafarroako nekazaritzako azaleraren %6,77. Guztira, 2.500 elikagai baino gehiago ziurtatzen dira, 35 sektoretakoak.

4 Zer ekarpen egiten du ekoizpen ekologikoak?

Ekoizpen ekologikoak gauza asko eskaintzen ditu oso esparru desberdinetan. Elikagai osasungarriak dira, kutsatzailerik gabeak, freskoak eta sasoikoak, eta horrek zuzeneko zerikusia du osasuna-

rekin. Gainera, modu iraunkorrean ekoizten dira, naturarekiko, haren zikloekiko eta ekosistemekiko erabateko errespetuarekin, eta horrek eragina du ingurumenean. Ekoizpen modua jasangarria da, eta askotan merkaturatze zirkuitu laburren bidez banatzen dira. Horrek zerikusia du landa garapenerekin eta gure herrietako nekazaritza jarduerari eustearekin.

5 Sakanan badago ekoizpen ekologikorik?

Bai, ekoizpen ekologikoa Foru Lurralde osoan dago. Sakanan abeltzaintza, gazta eta hestebeteak nabarmentzen dira, baina arrautzak eta horien eratorriak ere aurki ditzakegu. Zehazki, 16 operadore daude, nekazari, elaboratzaileen, abeltzainen eta biltegizainen artean banatuta.

6 Non aurki daitezke?

www.cpaen.org webgunean, "operadoreen gida" atalean, Nafarroako operadore guztiak aurkituko dituzte, baita Sakanakoak ere, herrien, produktu moten eta operadoreen arabera.

7 Eta elikagai ekologikoak eros- teko?

Era guztietako saltokietan banatzen dira: saltoki handietan, saltoki txikietan... Altsasuko merkaturan, Iruñeko EKOmerkaturan eta beste askotan ere aurki daitezke.

8 Online eros daitezke?

Baita. Azken bi urteotan, operadore askok bat egin dute Interneten, kontsumo taldeak sortu dira eta zentro logistiko bat sortu da, Ekoalde, partikularrei Internet bidez saldu eta Horeca kanalarri zerbitzua ematen diona. Webgunea: www.ekoalde.org. Gainera, txikizkako merkataritzaren eta ostalaritza ekologikoaren sare zabala dago www.navarraecologica.org webgunean.

9 Nola aurkezten da etorkizuna?

Beharrezkoa da Nafarroako ekoizpen ekologikoari bultzada ematea. Europako Batzordeak, "Baserritik mahaira" estrategia- ren bidez, esan du 2030ean Europako lurren %25a ekoizpen

ekologikoa izan behar dela, eta Nafarroan ez da %10era iristen.

10 Zer urrats eman behar dira?

Aurrera egin behar dugu Nafarroako ekoizpen ekologikoa hazi dadin eta Nafarroako gizarteari elikagai ekologiko osasungarriak eta jasangarriak eskaini ahal izateko. Jasangarriak eta osasungarriak lurraldearekin eta pertsonekin, klima aldaketa murrizten lagunduz eta gure herriei bizia emanez.

11 Nola ospatuko duzue 25. urteurrena?

Irailaren 24, 25 eta 26an 25. urteurrena ospatuko da Nafarroako Azoka Ekologikoarekin batera, Noaingo Zentzumenen Parkean. Ekologiaren festa izango da, Nafarroa osoko elikagai ekologikoen saltokiekin eta jaietako zein dibulgazioko jarduerekin. Harrera ona izatea espero dugu, sektorea ezagutzeko aukera ona izango da.

EZ AHAZTU ZURE HITZORDUAK!

ESKATU ZURE 2022ko EGUTEGIA

Neurri eta formatu ezberdinak

Zureaz galdetu!

Eskatu zure kontua kargamuturik gabe

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@komunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu